

Enplegu Publikoaren Eskaintza 2016-2017
*Komunikazio, Irudi eta soinu
teknikari espezialista*
Galdera sorta

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ATAL OROKORRA

1. **UPV/EHU-ko administrazio eta zerbitzuetako lan-kontratudun langileen III. Hitzar-men kolektiboaren 15. Artikuluak hauei egiten die erreferentzia:**
 - a) Baimenei
 - b) Espainiako Konstituzioari
 - c) Gizarte Funtzari
 - d) Lanpostu hutsak betetzeari
2. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, enplegatu publiko dira herri-administrazioetan ordaindutako eginkizunak betetzen dituztenak zeregin hauetan...**
 - a) Interes orokorrak zaintzeko zereginetan
 - b) Enpresa kontratatzailearen interesak zaintzeko zereginetan
 - c) Autonomia-gobernuaren interesak zaintzeko zereginetan
 - d) Gobernu Zentralaren interesak zaintzeko zereginetan
3. **Eskubide hauetatik zein jasotzen da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 15. Artikuluaren?:**
 - a) Askatasun sindikala izatekoa
 - b) Oporrak izatekoa
 - c) Indarreko araudiaren arabera erretiratzekoa
 - d) Adierazpen-askatasuna izatekoa
4. **Zeri buruzkoa da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren III. Kapitulua?**
 - a) Ordainsari-eskubideak
 - b) Oinarrizko eskubideak
 - c) Biltzeko eskubidea
 - d) Lanaldia, baimenak eta oporrak izateko eskubidea
5. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, zer sistemaren bidez hauta litezke lan-kontratudun langile finkoak?**
 - a) Oposizioa, oposizio-lehiaketa edo merezimenduak balioesteko lehiaketa
 - b) Oposizioa edo oposizio-lehiaketa
 - c) Oposizioa
 - d) Berariaz egindako lan-poltsa
6. **Ez da izango karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoia:**
 - a) Nazionalitatea galtzea
 - b) Funtzionarioak erabateko erretiroa hartzea
 - c) Funtzionario izateari uko egitea
 - d) Lanerako aldi baterako ezintasuna

7. **ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAREN ARABERA, HONELA SAILKATUKO DIRA LANGILE LAN-KONTRATUDUNAK:**
- a) Lan-arloko legeriaren arabera
 - b) Enpresa-batzordearen barne-akordioen arabera
 - c) 1996ko urriaren 23ko akordio arautzailearen arabera
 - d) Estatuaren Aurrekontu Orokorretako xedapen gehigarrien arabera
8. **Zer falta motatzat joko da greba-eskubidea askatasunez baliatzea eragozteko egintzak egitea?**
- a) Falta astuntzat
 - b) Falta arintzat
 - c) Falta oso larria.
 - d) Diziplinazkoa ez den faltatzat
9. **Zeinek izango du UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile lan-kontratudunen III. Hitzarmenaren interpretazioak sor ditzakeen arazoak aztertu eta konpontzeko eskumena?**
- a) Batzorde Parekideak
 - b) Negoiazio Batzordeak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Plangintza Batzordeak
10. **Nolakoa da UPV/EHU-ren prebentzio-zerbitzua?**
- a) Berezko zerbitzua
 - b) Besteren zerbitzua
 - c) Enpresaburuak pertsonalki onartutako zerbitzua
 - d) Esleitutako langile baten bidezko zerbitzua
11. **UPV/EHU-koak ez diren pertsonak edo erakundeek ezin izango dute erabili unibertsitatearen zigilua, baldin eta horretarako baimena ematen ez badie berenberegi:**
- a) Errektoreak
 - b) Gerenteak
 - c) Unibertsitateko Klaustroak
 - d) Gobernu Kontseiluak
12. **UPV/EHU-ren estatutuei jarraituz eta legeek diotena kontuan hartuta, UPV/EHU-k honela jarduten du:**
- a) Foru-erregimenean
 - b) Autonomiaz
 - c) Mendekotasun funtzionalez
 - d) Eskumen eskuordetuen erregimenean

13. **UPV/EHU-k, bere Estatutuen 5.3 Artikuluan, hau onartu eta bermatzen du:**
- a) Adierazpen-askatasuna
 - b) Erlijio-askatasuna
 - c) Katedra-askatasuna
 - d) Pentsamendu-askatasuna
14. **UPV/EHU-n, hizkuntza ofizialak hauek dira:**
- a) Euskara, gaztelania eta ingelesa
 - b) Euskara eta ingelesa
 - c) Gaztelania eta ingelesa
 - d) Euskara eta gaztelania
15. **Zein da UPV/EHU-ren kide bakarreko organoa?**
- a) Gizarte Kontseilua
 - b) Gobernu Kontseilua
 - c) Errektorea
 - d) Bizkaiko Campuseko Batzarra
16. **Unibertsitateko kideak talde hauetan banatzen dira:**
- a) Ikasleak, irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak
 - b) Ikasleak eta langile autonomoak
 - c) Irakasle eta ikertzaileak, eta administrazio eta zerbitzuetako langileak
 - d) Ikasleak, langile autonomoak eta zuzendaritzako karguak
17. **UPV/EHU-ko estatutuen arabera, nork ezarriko ditu Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen ordainsariak?**
- a) Errektoreak
 - b) Unibertsitateko Klaustroak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Gobernu Kontseiluak
18. **UPV/EHU-ren estatutuen arabera, langile lan-kontratudunak honela sailkatuko dira:**
- a) Ikastegietako batzarren akordioen arabera
 - b) Indarreko hitzarmen kolektiboaren arabera
 - c) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen arabera
 - d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera
19. **UPV/EHU-ren estatutuen arabera, UPV/EHU-ko langile funtzionarioak edo lan-kontratu finkoko langileak hautatzeko egingo diren probetako oinarrietan, hauek adierazi beharko dira, nahitaez:**
- a) Lehiakideek bete beharko dituzten baldintzak
 - b) Epaimahaiko kideen izen-deiturak
 - c) Deialdiari dagozkion zuzkidurak
 - d) Emaitzak argitaratuko diren data

20. **Zeini dagokio Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen karrera profesionalari buruzko arautegia garatzea?**
- a) Unibertsitateko Klaustroari
 - b) Gizarte Kontseiluari
 - c) Gobernu Kontseiluari
 - d) Enpresa Batzordeari
21. **Zein da lan-kontratudun Langileen Ordezkaritza-organo bateratua?**
- a) Langileen Batzarra
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Gobernu Kontseilua
 - d) Unibertsitateko Klaustroa
22. **Zein da Administrazio eta Zerbitzuetako Langile funtzionarioen ordezkaritza-organo bateratua?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Gobernu Kontseilua
 - d) Unibertsitateko Klaustroa
23. **Zeinek hartuko ditu ikasleen, irakasle eta ikertzaileen, eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen diziplina-araubideari buruzko erabakiak, indarrean dagoen legeriak beste organo bati esleitzen ez badizkio?**
- a) Aldezleak
 - b) Errektoreak
 - c) Arbitraje Batzordeak
 - d) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeak
24. **Unibertsitateko jarduera guztiekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebazteko bide alternatiboak, aurkakoak izango ez direnak, bultzatuko dituen erakunde burujabe eta inpartziala da:**
- a) Aldezlea
 - b) Enpresa Batzordea
 - c) Campus arteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordea
 - d) Errektorea
25. **Aldezle izateko hautagaia:**
- a) Gobernu Kontseiluak proposatu eta aukeratuko du
 - b) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta aukeratuko du
 - c) Gobernu Kontseiluak proposatu eta Unibertsitateko Klaustroak aukeratuko du
 - d) Unibertsitateko Klaustroak proposatu eta Gobernu Kontseiluak aukeratuko du

26. **Aldezleak ez du hartuko parte:**
- a) Ofizioz
 - b) Hauteskunde-prozeduretan
 - c) Alde batek eskatuta
 - d) Unibertsitateko edozein kidek aurkeztutako kexetatik abiatuta
27. **Aldezlearen gomendioen aurka errekurtsua jarri ahalko da:**
- a) Errektorea zerikusia duen alderdia denean
 - b) Ezingo da jarri errekurtsorik
 - c) Beti jarri ahal izango da errekurtsua
 - d) Unibertsitateko talde handi bati eragiten dionean
28. **Zeinen eskumena da graduondoko ikasketen helburuak onartzeko proposamena egitea gobernu-kontseiluari?**
- a) Graduoko Batzordearena
 - b) Graduondoko Batzordearena
 - c) Berezko Titulazioen Batzordearena
 - d) Errektorearena
29. **Unibertsitateko biblioteca ikasteko, irakasteko eta ikertzeko baliabideen gunea da, bai eta hauekin zerikusia daukaten bestelako jarduerak aurrera eramateko baliabideena ere:**
- a) Unibertsitate osoaren funtzionamendua eta kudeaketa
 - b) Ikasleen ikasteko gaitasuna garatzea
 - c) Irakasleen ikertzeko gaitasuna
 - d) Gizarteari zerbitzua ematea
30. **UPV/EHU-k hizkuntza ofizial hauen erabilera normal eta ofiziala bermatuko du:**
- a) Euskara, gaztelania eta ingelesa
 - b) Ingelesa eta gaztelania
 - c) Ingelesa eta euskara
 - d) Euskara eta gaztelania
31. **UPV/EHU-n, organo honek zehaztuko du zein lanpostutan izango den nahitaezko euskara eta gaztelania jakitea:**
- a) Gobernu Kontseiluak
 - b) Unibertsitateko Klaustroak
 - c) Enpresa Batzordeak
 - d) Langileen Batzarrak

32. **UPV/EHU-n, honi dagokio campusak aldatzea:**
- a) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Klaustroaren proposamenari jarraituz
 - b) Unibertsitateko Klaustroari, Gobernu Kontseiluaren proposamenari jarraituz
 - c) Gobernu Kontseiluari, Unibertsitateko Campusaren proposamenari jarraituz
 - d) Unibertsitateko Campusari, bere proposamenari jarraituz
33. **Hau da UPV/EHU-ko kontratazio-organoa, ahalmen hori eskuordetu badezake ere:**
- a) Gerentea
 - b) Errektorea
 - c) Kontratazio eta erosketen gerenteordea
 - d) Unibertsitateko Klaustroa
34. **Enplegatu publikoaren oinarritzko estatutua hauei aplikatzen zaie, besteak beste:**
- a) Unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
 - b) Unibertsitate publikoetako langile lan-kontratudunei bakarrik.
 - c) Funtzionarioei eta, dagokion neurrian, unibertsitate publikoetako zerbitzupean dauden langile lan-kontratudunei.
 - d) Unibertsitate pribatuetako langile guztiei eta unibertsitate publikoetako funtzionarioei bakarrik.
35. **Honela sailkatzen dira langile publikoak...**
- a) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, langile lan-kontratudunak (finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak izan) eta behin-behineko langileak.
 - b) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
 - c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finkoak.
 - d) Karrerako funtzionarioak eta langile lan-kontratudun finko nahiz aldi batekoak.
36. **Enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren arabera, langile lan-kontratudunak dira...**
- a) Legezko izendapen baten ondorioz Administrazio Zuzenbideak araututako estatutu-harreman baten bidez administrazio publiko bati lotuta daudenak, izaera iraunkorreko zerbitzu profesional ordainduak emateko.
 - b) Lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatze edozein modalitate erabilita, eta idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak.
 - c) Berariaz justifikatutako larrialdi- eta premia-arrazoiak direla-eta halakotzat izendatua dena berez karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko.
 - d) Izendapen baten bidez eta iraupen ez-iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.

37. **39/2015 legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen administrazio prozedura erkidearena, sektore publikoari aplikatzen zaio. sektore horretan sartzen dira hauek...**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoen administrazioak.
 - b) Estatuaren Administrazio Orokorra, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
 - c) Autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
 - d) Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak eta sektore publiko instituzionala.
38. **Nork onartzen du behin betiko UPV/EHU-ren aurrekontua?**
- a) Errektorea.
 - b) Dekanoak.
 - c) Gobernu Kontseiluak.
 - d) Gizarte Kontseiluak.
39. **Hauek dira UPV/EHU-ko segurtasun- eta osasun-batzordeak:**
- a) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat.
 - b) Campus arteko Batzorde bat, Ingurumen Segurtasunerako Batzorde bat eta Laneko Ikuskaritza.
 - c) Campus arteko Batzorde bat eta laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko.
 - d) Campus arteko Batzorde bat, laneko segurtasun eta osasunerako batzorde bat campus bakoitzeko eta Laneko Ikuskaritza.
40. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren arabera, lanalditik kanpo euskarazko ikastaroetan parte hartzen duten langileek baimen ordaindua eskuratzeko eskubidea izango dute:**
- a) Zeina ezin izango baita izan urtean 5 egun baliodun baino gehiagokoa.
 - b) Urtean bost egun baliodunekoa.
 - c) Ikastaroaren ordu guztien baliokide den egun kopurukoa
 - d) Hizkuntza-eskakizuna egiaztatu bada bakarrik ematen da baimena.
41. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrari laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Hezkuntza-laguntzako teknikari espezialista.

42. **Zer talde profesionaletan sailkatzen dira UPV/EHU-ko azp-ko lan-kontratudun langileen hitzarmen kolektiboaren eraginpeko langileak?**
- a) Ez dago talde profesionalen arabera sailkapenik.
 - b) I. taldea, II. taldea eta III. taldea.
 - c) I. taldea, II. taldea, III. taldea eta IV. taldea.
 - d) I. taldea, II. taldea, V. taldea, VI. taldea eta VII. taldea.
43. **Zein dira UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako langileak?**
- a) Langile funtzionarioak, lan-kontratudun langileak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - b) Langile funtzionarioak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - c) Langile lan-kontratudunak eta beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak, indarreko legeriari jarraikiz UPV/EHUn lanean jarduten dutenak.
 - d) Langile funtzionarioak bakarrik.
44. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, honela egituratzen dira unibertsitateko ikasketa ofizialak:**
- a) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta doktoregoa.
 - b) Bi ziklotan: gradua eta masterra.
 - c) Hiru ziklotan: gradua, masterra eta lanbide-heziketa.
 - d) Bi ziklotan: gradua eta doktoregoa.
45. **NOLA DU IZENA UPV/EHU-KO ARARTEKOAK?**
- a) Ararteko.
 - b) Herriaren defendatzaile.
 - c) Aldezle.
 - d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
46. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, UPV/EHU unibertsitatea...**
- a) Campus anitzekoa da.
 - b) Pluricampus motakoa da.
 - c) Campus bakarrekota da.
 - d) Bi campusekota da.
47. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, zein dira ikastegiak?**
- a) Eskola eta fakultateak.
 - b) Unibertsitateko campusak.
 - c) Ikastetxe nagusiak.
 - d) Ikasgelategiak.

48. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, dekanoren agintaldia...**
- a) 2 urtekoa izango da.
 - b) 3 urtekoa izango da.
 - c) 4 urtekoa izango da.
 - d) 5 urtekoa izango da.
49. **Zer organori dagokio UPV/EHU-ko plan estrategikoa eta hizkuntza-normalkuntzarako plana onartzea?**
- a) Klaustroari.
 - b) Gobernu Kontseiluari.
 - c) Errektorego-taldeari.
 - d) Errektoreari.
50. **Nork du ikastegi bateko arautegia onartzeko eskumena?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Zuzendaritza Kontseiluak.
 - c) Campuseko Batzarrak.
 - d) Gobernu Kontseiluak.
51. **Nork izendatzen ditu dekanook eta ikastegietako zuzendariak?**
- a) Ikastegiko Batzarrak.
 - b) Errektoreak.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Eusko Jaurlaritzak.
52. **Gizarte kontseilua...**
- a) UPV/EHUri atxikitako organo bat da.
 - b) UPV/EHUn kide anitzeko organo bat da.
 - c) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikitako organo bat da.
 - d) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren kide anitzeko organo bat da.
53. **Zer organok du eskumena unibertsitateko irakasleen irakaskuntzaren alorreko irizpide orokorrak esleitzeko UPV/EHU-n?**
- a) Gobernu Kontseiluak.
 - b) Irakaskuntza Plangintzarako Batzordeak.
 - c) Dekanotzak edo ikastegiko zuzendaritzak.
 - d) Saileko Kontseiluak.
54. **Aldezlearen helburua hau izango da:**
- a) Unibertsitatea ordezkatzeko prozedura judizialtan.
 - b) Unibertsitateko jarduerarekin zerikusia duten arazoak eta gatazkak ebaztea.
 - c) Gobernu Kontseiluak onartutako akordioak berrestea.
 - d) Unibertsitateko kideen arteko lotura izatea.

55. **Honi dagokio hasierako onespina ematea fakultate bat sortzeko proposamenei**
- a) Gobernu Kontseiluari
 - b) Fakultateko Batzarrari
 - c) Errektoreari
 - d) Unibertsitate-gaietako sail eskudunari
56. **UPV/EHU-ko gobernu-kontseiluaren kideak, besteak beste, hauek dira:**
- a) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko kideak
 - b) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bost kide
 - c) Unibertsitatekoak diren Gizarte Kontseiluko hiru kide
 - d) Unibertsitatekoak ez diren Gizarte Kontseiluko bi kide
57. **UPV/EHU-ko Estatutuen arabera, nor arduratzen da UPV/EHU-ren Administrazio-eta Ekonomia-zerbitzuak antolatu eta kudeatzeaz?**
- a) Errektorea.
 - b) Gerentea.
 - c) Campuseko errektoreordea.
 - d) Ondare eta Kontratazioetarako gerenteordea.
58. **Campuseko batzarrak kide hauek izango ditu, besteak beste**
- a) Gehienez sail-zuzendarien zortzi ordezkari.
 - b) Gehienez sail-zuzendarien sei ordezkari.
 - c) Gehienez sail-zuzendarien bost ordezkari.
 - d) Gehienez sail-zuzendarien lau ordezkari.
59. **UPV/EHU-ko gizarte-kontseiluak:**
- a) Araugintzarako ahalmena erabiliz, UPV/EHUko estatutuak garatu eta aplikatzeko arauak onartzen ditu
 - b) Bere eginkizunak hobeto betetzeko komenigarritzat jotzen dituen batzordeak eratu ditzake
 - c) Campus berriak sor ditzake
 - d) Inbertsio eta azpiegituren urte anitzetako programazioa onartzen du
60. **Zer arautzen du 2015eko urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 legearen 35. artikulua?**
- a) Erabateko deuseztasuna
 - b) Deuseztagarritasuna
 - c) Arrazoitzea
 - d) Administrazio-egintzen jakinarazpena.

61. **Espresuki kontrakoa xedatzen ez bada, Administrazio-prozedura bat ebazteko eskatzen diren txostenak:**
- a) aukerakoak eta ez-lotesleak izango dira
 - b) nahitaezkoak eta ez-lotesleak izango dira
 - c) aukerakoak eta lotesleak izango dira
 - d) nahitaezkoak eta lotesleak izango dira
62. **Adieraz ezazu baieztapen hauetako zein den zuzena:**
- a) aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkezteko epea hilabete izango da, gora jotzeko errekurtsoaren ebazpena jakinarazten denetik
 - b) administrazio-bidea amaitzen duten ebazpen eta egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren edo hari buruz ebazteko eskumena duen organoaren aurrean
 - c) administrazio-bidea amaitzen duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke egintza eman zuen organoari berari, edo zuzenean aurkaratu daitezke administrazioarekiko auzien jurisdikzioan
 - d) gora jotzeko edo berraztertze-errekurtsoaren ebazpenaren aurka, ezin izango da bestelako administrazio-errekurtsorik jarri.
63. **UPV/EHU-ren aurrekontuaren ezaugarriak euskal unibertsitate-sistemaren legearen 104. Artikuluan jasotzen dira, eta hauek dira:**
- a) Publikoa, bakarra eta orekatua izango da, eta bere diru-sarrerak eta gastu guzti-guztiak agertu beharko dira bertan
 - b) Publikoa eta orekatua eta solidarioa izango da
 - c) Nahikoa, zabala eta malgua izango da, eta kontabilitate-mugimendu guztiak agertu beharko dira bertan
 - d) Barnekoa, anizkoitza eta orekatua izango da
64. **Egiteko nagusia ofizio batean jardutea duten lanpostuak, zeinetan batez ere eskuzko teknikak erabili behar baitira eta zeinetan aritzeko ez baita ezinbestekoa ikasketa-titulaziojakin bat izatea:**
- a) Langile lan-kontratudun finkoentzat gordeko dira.
 - b) Langile lan-kontratudun finkoentzat gorde ahalko dira.
 - c) Langile funtzionarioentzat gordeko dira.
 - d) EAEko administrazio publikoetan ez dago halako lanposturik.
65. **UPV/EHU-rekiko zerbitzu-harremana hartzeko, nola hautau behar dira funtzionarioak eta langileak?**
- a) Enplegu-zerbitzu publikoen bidez.
 - b) Behin-behineko langile lan-kontratudunen edo langile mugagabe ez-finkoen artean
 - c) Langileen arloan eskumena duen organoak erakundearen interesetarako egokien deritzon moduan.
 - d) Bizkortasunez, objektibotasunari kalterik egin gabe.

66. **Hitzarmen kolektiboaren arabera, UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratudun Langileek zenbat aparteko ordu egin ditzakete gehienez urteko?**
- a) 80.
 - b) 85.
 - c) 100.
 - d) Gutxieneko kopuru bat dago, baina gehienekorik ez.
67. **Ezkontza edo odol bidezko ahaidetasunaren 2. Mailara artekoen gaixotasun larri egiaztatuagatik, zer iraupen izango du baimenak?**
- a) Hiru lanegun
 - b) Bi egun natural
 - c) Bi lanegun
 - d) Hiru egun natural
68. **Zer kontratu motarekin lotzen da langile baten erretiro partziala?**
- a) Praktikaldiko kontratuarekin.
 - b) Lan edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin.
 - c) Txanda-kontratuarekin.
 - d) Prestakuntzarako kontratuarekin.
69. **Erretiro partziala hartzen duten langileek zer izenpetzen dute?**
- a) Lan edo zerbitzu jakin baterako lanaldi partzialeko lan-kontratua
 - b) Erretiro partzialeko lan-kontratua
 - c) Lanaldi partzialeko txanda-kontratua
 - d) Lanaldi partzialeko lan-kontratua
70. **UPV/EHU-ko azp-ko lan-kontratudun langileek borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea dute?**
- a) Gutxienez urtebeteko antzinatasuna badute enpresan.
 - b) Ez dute halako eskubiderik; funtzionarioek bakarrik dute.
 - c) Gutxienez bi urteko antzinatasuna badute enpresan.
 - d) Gutxienez bi hirurteko aitortu badituzte.
71. **Lanpostu hauetatik, bat bakarrik da UPV/EHU-ko langile lan-kontratuduna.**
- a) Administrari laguntzailea.
 - b) Bibliotekako laguntzailea.
 - c) Bibliotekako teknikari laguntzailea.
 - d) Laborategiko teknikari espezialista.

72. **AZP-aren euskalduntze-batzordearen osaerari buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?**
- a) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kideak hauek izango dira: hamar irakasle edo ikertzaile, hiru ikasle, administrazio eta zerbitzueta-ko langileen ordezkari bat eta sindikatu bakoitzeko bi ordezkari.
 - b) Burua euskararen arloko errektoreordea izango da, eta batzordeko kide izango dira campusetako euskara-batzordeetako eta ikastegietako euskara-batzordeetako ordezkari bana, halakorik badago.
 - c) Batzordea osatuko dute AZPko langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzaren ordezkari bik eta Administrazioaren beste horrenbeste ordezkari. Horrez gain, sindikatu bakoitzak gehienez aholkulari bat eraman ahal izango du batzordearen bileretara.
 - d) Gobernu Kontseiluak arautuko ditu batzordeko kideak izendatzeko prozedura eta funtzionamendua.
73. **Zer da Administrazio eta Zerbitzueta Langileen erreferentziako plantila?**
- a) Giza baliabideak kudeatzeko tresna bat da
 - b) Giza baliabideen plangintza egiteko tresna bat da
 - c) Giza baliabideak kontrolatzeko tresna bat da
 - d) Lanpostuak baloratzeko tresna bat da
74. **Langileen Estatutua honela onartu zen:**
- a) Legegintzako Errege-dekretu bidez
 - b) Lege arrunt bidez
 - c) Lege-dekretu bidez
 - d) Xedapen iragankor bidez
75. **Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak:**
- a) Bitarteko funtzionarioaren figura ezabatzen du.
 - b) Bitarteko funtzionarioaren figura jasotzen du.
 - c) Bitarteko funtzionarioen figura mantentzen du estatutu hori indarrean sartu aurretiko kontratuatarako bakarrik.
 - d) Adierazten du bitarteko funtzionarioak karrerako funtzionario izatera pasatuko direla hirugarren xedapen gehigarrian jasotako prozedura berezi baten bidez.
76. **Behin-behineko langileei dagokienez:**
- a) Izendatzea nahiz kargutik kentzea librea izango da.
 - b) Izaera ez-iraunkorreko langileak dira.
 - c) Konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzte.
 - d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.

77. **Hirurtekoak:**

- a) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan oinarrizko ordainsaritzat hartzen dira.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ordainsari osagarritzat hartzen dira.
- c) Bitarteko funtzionarioek ezin dituzte kobratu.
- d) Ez dira ordainsaritzat hartzen.

78. **Desgaitasuna duten pertsonak:**

- a) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko hiruko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.
- b) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak ez du kontuan hartzen inolako neurririk desgaitasuna duten pertsonak funtzioan publikoan sartzeari dagokionez.
- c) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen kupo bat gorde ahal izango da, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten. Administrazio publiko bakoitzak zehaztuko du kopuru hori, zeina ezingo baita izan eskaintzen diren lanpostuen % 3 baino txikiagoa eta % 10 baino handiagoa.
- d) Enplegu publikoaren eskaintzetan, bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupo gordeko da, gutxienez, desgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten.

79. **B Taldeko kidego eta eskaletara iritsi ahal izateko, hau eskatuko da:**

- a) Graduako tituluaren jabe izatea.
- b) Goi-mailako teknikariaren tituluaren jabe izatea.
- c) B1 talderako, graduako tituluaren jabe izan beharko da. B2 talderako ez da halakorik behar.
- d) Batxilergoko tituluaren edo teknikari-tituluaren jabe izatea.

80. **Zein dira karrerako funtzionarioak hautatzeko sistemak?**

- a) Oposizioa.
- b) Lehiaketa.
- c) Oposizioa eta oposizio-lehiaketa.
- d) Lehiaketa-sistema bakarrik erabili ahal izango da baldin eta Administrazio Publiko-rako Estatuaren Goi Ikuskaritzak onartzen badu.

81. **Karrerako funtzionarioak hautatzeko prozesuetan, noiz erabili ahal izango da lehiaketa-sistema bakarrik?**

- a) Inoiz ez.
- b) Legearen indarrez bakarrik, eta salbuespen modura.
- c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten.
- d) Administrazio publiko bakoitzeko organo arduradun nagusiak onartzen badu.

82. **Nolanahi ere, enplegu publikoaren eskaintza betetzeko, epe hau izango da gehienez ere:**

- a) Hiru urte.
- b) Lau urte.
- c) Hamar urte.
- d) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan ez da zehazten.

83. **Langileen Estatutuaren arabera, hauetako zein ez da Langileen Oinarrizko Eskubideetako bat?**
- a) Greba-eskubidea.
 - b) Sindikatua askatasunez aukeratzeko eskubidea.
 - c) Lanbide-heziketa jarraitua izateko eskubidea.
 - d) Enpresan informazioa jasotzeko, hitz egiteko eta parte hartzeko eskubidea.
84. **Beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egin ditzakete:**
- a) Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago edukita independente bizi direnek, baldin eta gurasoen edo tutoreen onspena, edo bere kargura daukan pertsonaren edo erakundearen baimena badute.
 - b) Hamasei urtetik gorakoek.
 - c) Hemezortzi urtetik beherakoek ez dute lege-gaitasunik beren lan-zerbitzuak betetzeko kontratuak egiteko.
 - d) Hemezortzi urte baino gutxiago eta hamasei baino gehiago dituztenek, betiere lanaldia ez bada zazpi ordutik gorakoa.
85. **Lan-kontratua**
- a) Idatziz egin behar da beti.
 - b) Berbaz egindako kontratuak zuzenbidean erabat deusezak dira.
 - c) Lanbideren F3 ereduaren arabera egin behar da.
 - d) Praktikaldiko kontratuak idatziz jaso behar dira kasu guztietan.
86. **Praktikaldiko kontratuaren iraupena:**
- a) Ezingo da izan urtebete baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria bera izanda.
 - b) Ezingo da izan bi urte baino gehiagokoa enpresa berean edo beste batean, horretarako erabilitako titulua bera izanda.
 - c) Langilearen eta alderdi kontratatzailearen arteko akordio bidez zehaztuko da.
 - d) Ez dago araututa Langileen Estatutuan.
87. **Benetan lan egindako ordu kopurua:**
- a) Inoiz ezingo da izan egunean bederatzi ordu baino gehiago.
 - b) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan bederatzi baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.
 - c) Inoiz ezingo da izan egunean hamar ordu baino gehiago.
 - d) Benetan lanean egindako ordu arruntak ezin izango dira izan hamar baino gehiago egunero. Salbuespenik ere egon daiteke, hitzarmen kolektiboz, edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean eguneroko laneko denborarekin beste banaketaren bat egiten bada, betiere lanaldien arteko atsedenaldia errespetatuz.

88. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, lanpostu-zerrendek nahitaez jaso beharreko informazioaren artetik, erantzun hauetako bat okerra da:**
- a) Dedikazio-erregimena.
 - b) Hizkuntza-eskakizuna.
 - c) Hizkuntza-eskakizunak indarra galtzen duen eguna.
 - d) Lanpostua elebiduna ala elebakarra den.
89. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, lehiaketa-oposizio bidezko aukeraketa-prozedura batean, lehiaketa-aldiaren balorazioa:**
- a) Beti % 45 izango da.
 - b) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 45etik gorakoa.
 - c) Prozesua deitzen duen administrazio publikoak erabakitzen du.
 - d) Ez da inoiz izango oposizioan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 50etik gorakoa.
90. **Erantzun hauetatik zein ez da baliozkoa funtzionario bat zerbitzu berezietakotzat jotzeko?**
- a) Nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeetako funtzionario-izaera hartzen duenean.
 - b) Administrazioaren baimena duenean EAEko GKEen Erregistroan jaso eta aintzatesitako gobernu kanpoko erakundeetako batean sei hilabetetik gorako denboraldian nazioarteko edo nazioz gaindiko eginkizunak betetzeko.
 - c) Foru-diputazioetan eta toki-korporazioetan hautatutako kargua izan, eta kargu hori ordaindua eta dedikazio osokoa denean.
 - d) Gorte Nagusiek aukeratzen dutenean Konstituzio-erakundeetako edo ganberek hautatu beharreko organoetako kide izateko.
91. **Euskal Funtzio Publikoaren legearen arabera, kontzeptu hauetatik zein ez da lansari osagarri bat?**
- a) Lanpostu-mailako osagarria.
 - b) Produktibitate-osagarria.
 - c) Berariazko osagarria.
 - d) Ordainsari bereziak.
92. **Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, zer-nolako hutsegitea da bateraezintasunari buruzko arauak ez betetzea?**
- a) Falta oso larria.
 - b) Falta oso arina.
 - c) Falta larria.
 - d) Falta arina.

93. **Hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu batera sartzeko:**

- a) Hautatutako hautagaiak urtebeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
- b) Hautatutako hautagaiak sei hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.
- c) Eskakizuna bete beharrekoa izango da lanpostura sartzeko.
- d) Hautatutako hautagaiak hiru hilabeteko epea izango du eskakizuna betetzeko, hautatze-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen diren egunetik hasita.

94. **Zer unibertsitatek osatzen dute euskal unibertsitate sistema?**

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate publikoek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema.
- c) Euskal Unibertsitate Sistema hauek osatzen dute: UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea, Makina Erremintaren Institutua eta Zamudioko Unibertsitate Ikerketako Zentroa.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean egoitza duten unibertsitate guztiek eta egoitza Nafarroako Foru Erkidegoan izanik atxikitze-eskaera onartzen zaien unibertsitateek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen laugarren xedapen iragankorrean zehaztutakoaren arabera.

95. **UPV/EHUko ikasketa-planak egitea:**

- a) Unibertsitate bakoitzeko klaustroaren egitekoa da.
- b) Unibertsitate publikoaren kasuan, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena ez da beharrezkoa izango.
- c) Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziaren txostena beharko da beti.
- d) Behin betiko onartzeko, Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren oniritzia behar da.

96. **Euskal unibertsitate sistemako unibertsitate publikoak sortu eta ezabatzea:**

- a) Eusko Legebiltzarrari dagokio, unibertsitatearen jardun-eremua EAEko hiru lurralde historikoak badira.
- b) Unibertsitatearen jardun-eremua lurralde historiko bakar bat baldin bada, lurralde horretako Batzar Nagusiei dagokie.
- c) Eusko Legebiltzarrari ez beste inori dagokio.
- d) Unibertsitate-hezkuntzako gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio.

97. **Unibertsitate-planak:**

- a) Lau urteko iraupena du.
- b) Bost urteko plan bat da.
- c) Hiru urteko plan bat da.
- d) Hezkuntza Sailak ezartzen du haren iraupena.

98. **Erakunde hauetatik zein ez dago jasota Euskal Unibertsitate Sistemaren Legean?**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseilua.
 - b) Unibertsitateko Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua.
 - c) Gizarte Kontseilua.
 - d) EAEko Errektoreen Batzarra.
99. **Unibertsitate Publikoaren aurrekontuetan, programa-kontratuak:**
- a) Unibertsitateak ez du lege-baimenik programa-kontratuak sinatzeko; unibertsitate publikoek bakarrik.
 - b) Oinarrizko ekarpen bat dira.
 - c) Ekarpentzako subsidiario bat dira.
 - d) Baldintzapeko finantzaketa-erakunde bat dira.
100. **Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate ez-publiko batek fakultate berri bat sortu nahi badu:**
- a) Euskadiko Unibertsitate Kontseiluaren baimena behar du.
 - b) Unibertsitateen gaitasun eskumenak dituen sailaren baimena behar du.
 - c) Eusko Legebiltzarraren baimena behar du.
 - d) Fakultate berria kokatuko den lurralde historikoko Batzar Nagusien baimena behar du.
101. **UPV/EHU:**
- a) Foru-zuzenbideko erakunde bat da.
 - b) Zuzenbide publiko erkideko erakunde bat da.
 - c) Zuzenbide publikoko erakunde bat da.
 - d) Zuzenbide pribatuko eta finantzaketa publikoko erakunde bat da.
102. **Hauetako zein ez da UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkari-entitate bat?**
- a) Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen Batzarra.
 - b) Enpresa Batzordea.
 - c) Ikastegietako batzarrak.
 - d) Atal sindikalak.
103. **Nork aukeratuko du aldeaz?**
- a) Gobernu Kontseiluak gehiengo osoz, 5 urterako.
 - b) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan dauden gehiengo osoz, 5 urterako.
 - c) Klaustroak, errektoreak proposatuta, 5 urterako.
 - d) Klaustroak, Gobernu Kontseiluak proposatuta, Klaustroan dauden bi heren gehiengoarekin, 5 urterako.

104. **Euskal Unibertsitate-sistemaren Unibertsitate-ikastegiak sortu, aldatu edo kentzea:**
- a) Unibertsitateko Klaustroari dagokio, Gobernu Kontseiluak proposatuta.
 - b) Gobernu Kontseiluari dagokio.
 - c) Unibertsitate-gaietan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Saileko titularrak onartuko du.
 - d) Gobernu Kontseiluari eta ikastegia dagoen edo egongo den Campuseko Batzarrari dagokie.
105. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, euskal autonomia erkidegoko instituzio komunek zuzeneko ekintzak abiaraz baditzakete ere, honi dagokio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko arauak betearaztea:**
- a) Estatuaren Administrazio Orokorrari.
 - b) Autonomia-erkidegoko erakundeei.
 - c) Lurralde historikoetako tokiko organoei eta foru-administrazioari.
 - d) Lurralde historikoetako foru-organoei eta tokiko administrazioari.
106. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, berdintasunaren arloko zer neurri diseinatu eta egikaritzea dagokie instituzio komunei?**
- a) Diskriminazio positiborik gabekoak.
 - b) Ekintza positibokoak.
 - c) Ekintza publikokoak.
 - d) Diskriminazio positibokoak.
107. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio emakumeen eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki hauetan era bateratuan egin beharrekoak direnean:**
- a) Lurralde historiko guztietan.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan eta Euskal Herriaren lurralde osoan.
 - c) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan.
 - d) EAEko udalerri guztietan.
108. **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 legearen arabera, autonomia erkidegoko administrazioari dagokio, halaber:**
- a) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko informazio-jarduerak egitea.
 - b) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
 - c) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko orientazio-jarduerak egitea.
 - d) Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerari buruzko koordinazio-jarduerak egitea.

109. **2005eko otsailaren 18ko gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunerako 4/2005 legearen ondoreetarako, pertsona anitzeko administrazio-organismoetan ordezkaritza orekatutzat joko da sexu biek gutxienez ordezkaritza hau dutenean:**
- a) % 50eko ordezkaritza dutenean.
 - b) % 40tik gorako ordezkaritza dutenean.
 - c) % 45eko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.
 - d) % 40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean.
110. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboa hauei aplikatuko zaie:**
- a) UPV/EHUrekin lotura juridiko eta laboral mugagabea edo aldi baterakoa duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
 - b) UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langile guztiei.
 - c) UPV/EHUren zerbitzupeko funtzionarioei.
 - d) Lotura juridiko eta laboral mugagabea bakarrik duten administrazio eta zerbitzuetako langileei.
111. **Langile lan-kontratudunen lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamenak:**
- a) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Batzorde Parekidearekin negoziatu ondoren.
 - b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
 - d) UPV/EHUko Klaustroak onartuko ditu, gerentearen proposamenari jarraikiz, eta aldez aurretik Plangintza Batzordearekin negoziatu ondoren.
112. **Promozio profesionalean parte hartu ahalko dute:**
- a) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek.
 - b) UPV/ EHUrekin lan-lotura finkoa duten langileek, betiere beren lanpostuan gutxienez bi urteko antzinatasuna badute.
 - c) UPV/ EHUrekin lan-lotura duten langileek.
 - d) Gutxienez 5 urteko antzinatasuna duten langile guztiek.
113. **Lanpostuen zerrendetan, hauek jaso behar dira:**
- a) Aurrekontuetan diruz hornituta dauden lanpostu guztiak.
 - b) Aurrekontuetan diruz hornituta egon eta langile funtzionarioentzat gordeta daudenak bakarrik.
 - c) Langile funtzionario eta langile lan-kontratadunentzakoak bakarrik, hutsik daudenak izan ezik.
 - d) Lanpostu guztiak, aurrekontuetan diruz hornituta egon nahiz ez.

114. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako Langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboaren arabera, norberaren kontuatarako baimena:**
- a) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuatarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu.
 - b) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuatarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta urtebetera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.
 - c) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuatarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu.
 - d) Tartean oso arrazoi sendoak egon ezean, norberaren kontuatarako baimena langilea jardunean hasi edo jardunera itzuli eta bi urtera baino ezingo da eskatu, eta Plangintza Batzordearen alde aurretiko baimena beharko da.
115. **Nahitaezko eszedentzian dagoen langileari dagokionez:**
- a) Lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, baina eszedentzia aldia ez zaio kontuan hartuko antzinatasunerako.
 - b) Antzinatasuna kontuan hartuko zaio, baina ez du eskubiderik izango lanpostua gordea izateko.
 - c) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du, eta eszedentzia-aldia kontuan hartuko zaio antzinatasunerako.
 - d) Langileak lanpostua gordea izateko eskubidea izango du baldin eta eszedentzia 2 urte baino gutxiagokoa bada, eta antzinatasunerako zenbatzeko eskubidea izango du.
116. **UPV/EHU-ko gizarte funtsa erabili ahalko dute:**
- a) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek.
 - b) Langile funtzionarioek bakarrik.
 - c) Langile lan-kontratadunek bakarrik.
 - d) UPV/EHUko irakasle eta/edo ikertzaile guztiek.
117. **UPV/EHU-ko Administrazio eta Zerbitzuetako lan-kontratadun langileen hitzarmen kolektiboan aurreikusitako prestakuntza batzordea hauek osatuta egongo da:**
- a) Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzeko bi ordezkari eta administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - b) Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - c) Gehiengo duen sindikatuko bi ordezkari, Enpresa Batzordean langileen ordezkariak duten gainerako sindikatu bakoitzeko ordezkari batek eta Administrazio beste horrenbeste ordezkari.
 - d) Batzorde Parekideak dituen ordezkari berek.
118. **Prebentzioko ordezkariak:**
- a) Larrialdi-planak diseinatzeko ardura dute.
 - b) Prebentzio-jarduerak planifikatzeko dituzte urtero prebentzioko teknikariek batera.
 - c) Unibertsitateko langileen izenean dihardute prebentzio arloan, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko arautegian jasotako eskumenak eta eskubideak izango dituzte.
 - d) Larrialdi-planak kudeatzeko ardura izango dute.

119. **Nori dagokio UPV/EHU-ko erregistro orokorra mantentzea?**
- a) Idazkari nagusiari.
 - b) Errektoreari.
 - c) Dagokien zerbitzuburuei.
 - d) Campuseko errektoreordetzei.
120. **UPV/EHU-ren estatutuei jarraituz, zer organori dagokio beste organo batzuei espre-suki esleituak ez dauden eskumenak egikaritzea?**
- a) Gobernu Kontseiluari.
 - b) Klaustroari.
 - c) Errektoreari.
 - d) Idazkari nagusiari.

ATAL ESPEZIFIKOA

1. **Hartualdi batean irabazia handitzen badugu, zer lortuko dugu?**
 - a) Argi gehiago
 - b) Mido gutxiago
 - c) Luminantzia handiagoa
 - d) Argi gutxiago
2. **Zer da EDL bat?**
 - a) Editatze jakin bat eratzen duten parametroen zerrenda
 - b) Egindako editatze bakoitzaren edizioak ordenatzen dituen sailkatzailea
 - c) Atzerapena adierazten duen parametroa
 - d) Lotura dinamiko lineala
3. **Noiz lantzen da soin. banda?**
 - a) Bikoizketa baino lehen
 - b) Nahasteak egitean
 - c) Masterra izan ondoren
 - d) Gidoia izan baino lehen
4. **Zer da M-PEG sigla?**
 - a) Audio-formatu bat
 - b) Galerarik gabeko bideo-konpresioko sistema bat
 - c) Edizio ez-linealeko sistema bat
 - d) Galeradun bideo-konpresioko sistema bat
5. **Zer da leiar baten foku-distantzia?**
 - a) Aurreko puntu nodaletik atzeko puntu nodalera bitarteko distantzia
 - b) Leiarren zentro optikotik fokurainoko distantzia
 - c) Target-aren diagonal
 - d) Enkoadratze-angelua
6. **Eraikin baten plano batean ikusten badugu enkoadraketaren behealdetik eraikina-ren hormek bat egitera jotzen dutela, nolakoa da plano?**
 - a) Goitik beherakoa
 - b) Behetik gorakoa
 - c) Normala
 - d) Handitua
7. **Zein da maiztasun entzungarrien tartea?**
 - a) 20 Hz-etik 80.000 Hz-era
 - b) 20 Hz-etik 60.000 Hz-era
 - c) 20 Hz-etik 40.000 Hz-era
 - d) 20 Hz-etik 20.000 Hz-era

8. **Kolore osagarriak batuz gero, hau emango lukete:**
- a) Gorria
 - b) Urdina.
 - c) Beltza
 - d) Zuria
9. **Nola deritzo zerr. hortz erako soin. seinaleari?**
- a) Zarata zuria
 - b) Zarata arrosa
 - c) Zarata beltza
 - d) Zarata horia
10. **Zer da argiztapen-triangelua?**
- a) Argi nagusia, hondoko argia eta kontrako argia
 - b) Argi nagusia, kontrako argia eta argi betegarria
 - c) Argi nagusia, argi lausoa eta kontrako argia
 - d) Hondoko argia, kontrako argia eta argi betegarria
11. **Muntaketa zinematografikoa...**
- a) Mistoa da
 - b) Altxatzea da
 - c) Lineala da
 - d) Ez-lineala da
12. **Aurkezle eseri baten behetik gorako bat lortuko duzu...**
- a) Kameraren ardatz optikoa begien lerroaren azpitik jarrita
 - b) Kamera aurkezlearen atzean jarrita
 - c) Kamera aurkezlearen ezkerrean jarrita
 - d) Kamera aurkezlearen eskuinean jarrita
13. **Objektibo batean, f zenbakia irekiduraren tamainari dagokio. Zein da irekidurarik handiena?**
- a) 1,8.
 - b) 5,6.
 - c) 16.
 - d) 22.
14. **Hartualdi batean, zer argi da itzalak leuntzen eta kontrastea erregulatzen dituen?**
- a) Argi nagusia
 - b) Kontraargia
 - c) Argi betegarria
 - d) Zuzeneko argia

15. **Noiz egin behar da zurien balantzea?**
- a) Diafragma aldatzen dugunean
 - b) Obturazio-abiadura aldatzen dugunean
 - c) Kolore-barrak hautatu eta bideo-seinalera itzultzen garenean
 - d) Kolore-tenperatura aldatzen denean
16. **Zer izen du objektibo baten zentrotik irudiaren zentrora doan irudizko lerroak?**
- a) Argiztapen-ardatza
 - b) Ekintza-ardatza
 - c) Ardatz optikoa
 - d) Ardatz eragilea
17. **Egiten al da chroma-keya hondo beltz batekin?**
- a) Beti
 - b) Ez
 - c) Goitik behera digitaletan bakarrik
 - d) Grabazio analogikoan bakarrik
18. **Zer da ziklorama bat?**
- a) 16 × 24 tamainako fotograma bat
 - b) Estudioaren atzealdea inguratzen duen dekoratu bat
 - c) Proiekzio erdizirkularreko pantaila bat
 - d) 16:9ko fotograma bat
19. **Eremu-sakonera...**
- a) Handiagoa da fokuratutako subjektuaren aurrean atzean baino
 - b) Txikiagoa da fokuratutako subjektuaren aurrean atzean baino
 - c) Berdina da fokuratutako subjektuaren aurrean eta atzean
 - d) Puntu bakar bat da irekidura guztietarako
20. **Zein da bideo-kamera baten irabazia handitzearen eragozpen nagusia?**
- a) Seinale/zarata erlazioa handitzea
 - b) Emultsio-pikorra ikusgai bihurtzea
 - c) Argi handiek CCD gailua erretzea
 - d) Bereizmena handitzea
21. **Nora orientatu behar da fotometroa argi erasotzailea neurtzeko?**
- a) Argi-iturriaren aldera
 - b) Subjektuaren aldera
 - c) Grisen karta batera
 - d) Zurien balantzerako erabiltzen den puntura

22. **Zein da soinu-efekturik egokiena pottoki-ahots tipikoa lortzeko?**

- a) Flanger
- b) Chorus
- c) Pitch
- d) Black

23. **Soinuaren ezaugarriak hauek dira:**

- a) Tonua, distira, asetasuna
- b) Tonua, tinbrea, intentsitatea
- c) Altua, baxua, lineala
- d) Distira, asetasuna, lineala

24. **Zer erradiazio mota da 10¹⁴ Hz-eko maiztasuna?**

- a) Infragorria
- b) Ikusgaia
- c) Ultramorea
- d) Maiztasuna ezin da neurtu hertzetan

25. **Zein da argiztapenaren unitatea?**

- a) Watta
- b) Luminikoa
- c) Kandela
- d) Luxa

26. **Tinbrea, soinuaren propietate gisa, zeri dagokio?**

- a) Presentziari
- b) Koloreari
- c) Tamainari
- d) Altuerari

27. **Zer da kamera-katea?**

- a) Estudio bateko kameren multzoa
- b) Kamera, kablea eta kontrol-unitatea
- c) Kameraren eta kontrolaren arteko lotura
- d) Kamera mugikorrek erabiltzen dituzten errail-sistemak

28. **Zer arlotako elementua da barrikuda?**

- a) Argiztapena
- b) Muntaketa
- c) Karakterizazioa
- d) Atrezkoa

29. **Zer egin behar da bideo-kamerarekin grabatzen hasi aurretik?**
- a) Zuriaren balantzea
 - b) Sistemen erregulazioa
 - c) Zintaren tentsio bat
 - d) Sistemak berrabiaraztea
30. **Nork erabiltzen du autocue-a?**
- a) Kamerariak
 - b) Esatariak
 - c) Eszena-zuzendariak
 - d) Ikusleak
31. **Diafragmaren irekidura f/4tik f/8ra ixten bada eremu-sakonera handitzeko, zer egin beharko da?**
- a) Argiztapena bikoiztu, esposizio bera mantentzeko
 - b) Argiztapena laukoiztu, esposizio bera mantentzeko
 - c) Argiztapena erdira ekarri, esposizio bera mantentzeko
 - d) Argiztapena laurdenera ekarri, esposizio bera mantentzeko
32. **Objektibo berarekin, zer ondorio du diafragma gehiago ixteak?**
- a) Eremu-sakonera txikiagoa izatea
 - b) Eremu-sakonera handiagoa izatea
 - c) Eremu-sakonera ez aldatzea
 - d) Eremu-sakonera handiagoa izatea fokua hurbil dagoenean, eta txikiagoa urrun dagoenean
33. **Errefrakzio-indizearen balioa...**
- a) 1 edo handiagoa da beti
 - b) 1 edo txikiagoa da beti
 - c) 0 eta 1 artekoa da beti
 - d) Hiru da beti
34. **Zertarako erabiltzen da kontraargia?**
- a) Flash-gastua aurrezteko
 - b) Argi betegarri bat lortzeko
 - c) Argi nagusiak aurpegian eragiten dituen distirak ezabatzeke
 - d) Hondoko figurak bereizteko
35. **Hauek dira kolorearen hiru parametroak:**
- a) Ikusgaitasuna, argitasuna, kalitatea
 - b) Distira, tonua, asetasuna
 - c) Luminantzia, chroma, gardentasuna
 - d) Ikusgaitasuna, gardentasuna, intentsitatea

36. **Nola neurtzen da kolore-tenperatura?**
- a) Kelvinetan
 - b) Celsius gradutan
 - c) Réaumur gradutan
 - d) Fahrenheit gradutan
37. **Zer angelutan jarriko zenuke kamera handitasun-sentsazioa emateko?**
- a) Goitik beherakoan
 - b) Behetik gorakoan
 - c) Angelu kamutsean
 - d) Angelu zorrotzean
38. **Drop-out delakoa seinale-mailaren galera bat da, hau baino handiagoa:**
- a) 25 dB
 - b) 35 dB
 - c) 45 dB.
 - d) 55 dB.
39. **Zer da play-backa?**
- a) Musika jakin bat grabatzea
 - b) Aurrez grabatutako programa bat ematea
 - c) Kirol-ekitaldi bat bikoiztea
 - d) Soinuak birgrabatzea
40. **Zer izen du begiko fokuratze aldakorreko leiarrak?**
- a) Kristalinoa
 - b) Kornea
 - c) Fobea
 - d) Makilak
41. **Herenen legean, puntu indartsu batek...**
- a) Arreta desbideratzen du
 - b) Arreta biltzen du
 - c) Laukitik ateratzen du
 - d) Fokutik ateratzen du
42. **12 V eta 8 A-ko bateria batek zenbat denbora elikatu ahal izango du etengabe 96 W-eko kontsumoa duen kamera bat?**
- a) 35 minutuan.
 - b) 60 minutuan.
 - c) 96 minutuan.
 - d) 120 minutuan.

43. **Zer izen du soinu-uhinak ziklo bat osatu ondoren ibilitako distantziak?**
- a) Uhin-luzera
 - b) Bolumena
 - c) Heina
 - d) Maiztasuna
44. **Objektibo batean 12/120 irakurtzen dugunean, zeri dagokio?**
- a) Objektiboaren diametroei
 - b) Foku-distantziei
 - c) Irudiaren planotik abiatuta dagoen luzerari
 - d) Obturazio-abiadurari
45. **Zein dira PAL 625 telebistako koadro (frame) baten osagaiak?**
- a) 2 eremu gurutzelarkatu.
 - b) Gurutzelarkatu gabeko 4 eremu.
 - c) 60 eremu.
 - d) 50 eremu.
46. **Telebist. kamera baten obturadore elektronikoaren (shutter-aren) abiadura handitzeak zer efektu eragiten du irudiaren argitasunean?**
- a) Handitu egiten du
 - b) Gutxitu egiten du
 - c) Ez dio eragiten argitasunari
 - d) Faktore finko batez biderkatzen du
47. **ND iragazki batek...**
- a) Argia polarizatzen du
 - d) Kolore-tenperatura aldatzen du
 - c) Argitasuna gutxitzen du
 - d) Argitasuna handitzen du
48. **Lanpara halogenoz argizatutako barnealde batean, zer iragazki hautatu behar da zurien doikuntza (White Balance) egokia lortzeko?**
- a) 3.200 K
 - b) 5.600 K
 - c) 5.600 K + ND
 - d) 5.600 K + % 20 ND
49. **Filter»Distort»Optical Lens Correction iragazkiak:**
- a) Argazki-kameren objektiboen ohiko distortsio-akatsak zuzentzen ditu
 - b) Argazki-kameren foku-distantzia batzuen efektua simulatzen du
 - c) Objektibo desberdinekin argazkiak egitean sartzen diren kolore-dominanteak iragazten ditu
 - d) Argazki-kameren objektibo batzuen efektua simulatzen du

50. **Zer da «Flash Back»a ikuz-entzunezko narratiban?**
- a) Istorio baten kronologia aldatzea ekintza iraganera eramanez
 - b) Narratzailea erabiltzea istorioan
 - c) Istorio baten kronologia aldatzea ekintza etorkizunera eramanez
 - d) Pertsonaia batek aspaldi gertatu zaion istorio bat kontatzea
51. **Zuria, bideoan, hau da:**
- a) Hauen batura: % 30 R-tik + % 59 G-tik + % 11 B-tik
 - b) R + G + B % 75ean
 - c) R + G + B % 33,33an
 - d) Ekipamendu bakoitzean, fabrikatzailearen doikuntzek definituko dute
52. **Zertarako erabiltzen da Back Focus doikuntza bideo-kamera bateko sistema optikoan?**
- a) Back Focus eraztunak —pseudomakro ere deitua— makro sistema optikoak ordeztu
 - b) Sistema optikoaren zoom-tarte osoan fokua doitu eta zuzen mantentzen du objektiboa edo CCDak aldatu ondoren
 - c) Bigarren planoan dagoena fokuratuta agerrarazten du
 - d) Panoramika horizontal oso luze batean kamerariaren atzean dagoena fokuratuta agerrarazten du
53. **Zer egin behar dugu kameran eszena baten kolore-tenperatura handitzeko?**
- a) Iragazki laranja bat jarri
 - b) Dentsitate neutroko iragazki bat jarri
 - c) Iragazki urdin bat jarri
 - d) Iragazkirik jarri ez eta diafragma ireki
54. **Zer egiten du «dimmer» izeneko gailuak?**
- a) Argi erasotzailea neurtzen du
 - b) Argiaren kolore-tenperatura neurtzen du
 - c) Lanpara batean barrena dabilen korrontearen intentsitatea erregulatzen du
 - d) Estudioan islatzen den argia neurtzen du
55. **Objektibo baten irekidura f/4-tik f/8-ra aldatzen bada, argitasuna**
- a) Erdira gutxitzen da
 - b) Laurdenera gutxitzen da
 - c) Bikoiztu egiten da
 - d) Laukoiztu egiten da
56. **12 d.B-eko irabazi bat diafragma hau irekitzearen baliokidea da:**
- a) 3 ½ stop
 - b) 2 ½ stop
 - c) 2 stop
 - d) Eskailera eta dominantzia-pultsua

57. **Lege hauetako zein dago zabal onartuta editatzearen oinarritzko printzipio gisa?**
- a) Hiru herenen legea
 - b) Karratuaren alderantzizko legea
 - c) Hogeita hamar graduen legea
 - d) Murphyren legea
58. **Bi musika-tresna desberdinek ekoitzitako musika-nota berdinak zertan dira desberdinak?**
- a) Tinbrean
 - b) Tonuan
 - c) Maiztasunean
 - d) Intentsitatean
59. **Audio-konpresoreek:**
- a) Seinalearen tarte dinamikoa murrizten dute
 - b) Seinalea konprimatzen dute euskarri magnetikoetan garraiatzeko
 - c) Grabatutako maiztasunen maila 0 dB-era doitzen dute
 - d) Seinale-puntak normalizatzen dituzte seinalearen eta zarataren arteko erlazioa aldatu gabe
60. **Zergatik erabiltzen dira aparrezko pantailak berriemaileen mikrofonoetan?**
- a) Erabiltzaileen higiena babesteko
 - b) Haizeak eragindako zaratak saihesteko
 - c) Mikrofonoari nahi gabe emandako kolpeen zaratak saihesteko
 - d) Enpresaren logoa jartzeko
61. **Zer maiztasun du erreferentzia-tonu delakoak?**
- a) 10.000 kHz
 - b) 1.000 Hz
 - c) 1.000 MHz
 - d) 100 Hz
62. **Zer da MP3?**
- a) Audio digitalaren konpresio-akronimo bat, MP1 eta MP2 artean dagoena
 - b) MPEG-1 audio layer 3 —ezagunagoa MP3 izenaz— galerarekin konprimatutako audio digitaleko formatu bat da, Moving Picture Experts Group (MPEG) taldeak garatua
 - c) Applek patentatu eta merkaturatutako audioko gailuen familia baten izena da
 - d) Streaming bidez Internetetik kalitateko musika deskargatzeko fitxategi-formatu bat da

63. **Zein da norabide guztietatik datozen soinuekiko sentikortasun bera duen mikrofono bat definitzen duen soinu-atzipeneko diagrama?**
- a) Kardioidea
 - b) Hiperkardioidea
 - c) Norabide orotakoa
 - d) Norabide bakarrekkoa
64. **Tonurik baxuenak maiztasun-tarte honetan daude:**
- a) 0-20 Hz
 - b) 20-300 Hz
 - c) 300-1.000 Hz
 - d) 1.000-2.000 Hz
65. **Norabidetasunaren arabera, hiru talde handitan sailkatu ditzakegu mikrofonoak:**
- a) Norabidezkoak, kardioideak eta superkardioideak
 - b) Norabide bakarrekkoak, bi norabidekoak eta norabide orotakoak
 - c) Norabidezkoak, norabide orotakoak eta kardioideak
 - d) Norabide bakarrekkoak, bi norabidekoak eta kardioideak
66. **Zer da wild-track-a?**
- a) Soinu ez-sinkrono bat, irudiarekin batera erregistratzen ez dena
 - b) Irudiarekin batera, sinkronikoki, erregistratzen den soinu bat
 - c) Filmaren soinu-girotzea
 - d) Soinu erregistratu bat, gero erabiliko ez dena
67. **Paparrekoko mikrofonoa**
- a) Norabidezkoa da
 - b) Bi norabidekoa da
 - c) Norabide orotakoa da
 - d) Norabide bakarrekkoa da
68. **Baieztafen hauetako zein da zuzena Video Streaming teknologian?**
- a) Video Streaming teknologiak ez du codec delakorik erabiltzen
 - b) Video Streaming teknologiaren bidez, musika entzun eta bideoak ikus daitezke fitxategiak aldeztatik deskargatuta egon beharrik gabe
 - c) Video Streaming teknologia berariaz diseinatuta dago Interneteko bideoak atzitzeko haririk gabeko sareetatik (Wi-Fi, Bluetooth...)
 - d) Video Streaming teknologia berariaz diseinatuta dago komunikazio-linea asinkronoetarako, hala nola ADSL

69. **Photoshopen, non gorde behar da hautatutakoa geroago erabiltzeko?**
- a) Geruzetan
 - b) Kanaletan
 - c) Cookietan
 - d) Histograman
70. **Irudi bektorial bat eta bit-mapa den beste bat berreskalatzen baditugu, zeinek galduko du bereizmena?**
- a) Irudi bektorialak bakarrik
 - b) Bit-mapa den irudiak bakarrik
 - c) Aurreko biek.
 - d) Batek ere ez
71. **Hiperesteka bat hau da:**
- a) Bi ordenagailuren arteko urruneko konexio bat
 - b) Web-orri bisitagarriak dituen leku bat
 - c) Web-orri batean, beste web-orri batera egindako erreferentzia bat
 - d) Webgune batean, kolore, azpimarratu eta abarrez aberastutako testu bat
72. **Zer muga dute FAT32 diskoek bideoa eskuratu nahi duzunean?**
- a) Ez dute audioa eskuratzen
 - b) Irudiak ez dira ikusten eskuratu bitartean
 - c) Ezin dute eskuratu 4 GB-tik gorako fitxategirik
 - d) Ez dute inongo mugarik
73. **Zein da maketazio-aukerarik onena elementu-zerrendatze baterako erabat atzigarria izan behar duen web-orri batean?**
- a) Taula batekin, maketazioa hobeto kontrolatzeko
 - b) Zerrenda batekin
 - c) Ahalik eta modurik sinpleenean, bata bestearen azpian idatziz lerro-jauzi batekin
 - d) Web orri guztiak erabat atzigarriak dira
74. **Zer karaktere multzok emango liguke aukera HTMLn maila bat bakarrik igotzeko bide erlatibo batean?**
- a) /
 - b) ./
 - c) ../
 - d) ../../
75. **Irudi bat duotonu moduan lortu nahi baduzu, hau egin behar da lehenik:**
- a) Irudia akoplatzea
 - b) Irudia kolore indexatu bihurtzea
 - c) Irudia gris-eskala bihurtzea
 - d) Nahi den kolorea lortzea «kolorea doitu»tik

76. **Zer dira H.320 eta H.323 protokoloak?**

- a) ISDN bidezko eta banda zabaleko edo Interneteko komunikazioetan bideokonferentziarako erabiltzen diren protokoloak
- b) GSM sare bidez bideokonferentziak egiteko diseinatutako protokoloak
- c) Bideokonferentzia-kameren tarte panoramikoak definitzen dituzten protokoloak
- d) Bideokonferentzietarako sarbidea izateko pasahitz seguruak autentifikatzeko protokoloak

77. **Zer da MCUa?**

- a) Multipuntu konferentziak modu zentralizatuan kudeatzeko sistema bat
- b) Multicast deritzon protokoloaren definizioa
- c) Bideokonferentzia batean deskode daitezkeen audioko eta bideoko fluxuen kopuruaren neurri-unitatea
- d) Bideokonferentziak IP sareetan edo Interneten erabiltzen duen 3 mailako komunikazio-protokoloa

78. **Segundoko zenbat koadro behar dira jarraitutasun-sentsazioa emateko animazio-film batean?**

- a) 24 fps
- b) 15 fps
- c) 25 fps
- d) 19,97 fps

79. **Zein da koadro-maiztasuna PALen?**

- a) 25 Hz
- b) 50 Hz
- c) 30 Hz.
- d) 60 Hz

80. **Zer efektu sortzen du diafragma oso itxi batek (f/22ra itxia)?**

- a) Bereizmen-galera
- b) Kontraste gogorragoa
- c) Eremu-sakonera txikiagoa
- d) f/0,97ra baino argitasun handiagoa

81. **Nola transmititzen dira soinu-uhinak?**

- a) Luzetarako uhin elektromagnetiko bidez
- b) Zeharkako presio-uhin bidez
- c) Zeharkako uhin elektromagnetiko bidez
- d) Luzetarako presio-uhin bidez

82. **Limoi bat argi morez argiztatzen badugu...**
- a) Urdin argi ikusiko dugu
 - b) Hori ikusiko dugu
 - c) Zuri ikusiko dugu
 - d) Beltz ikusiko dugu
83. **Lehen plano batean, aktoreak enkoadraketaren alde baterantz begiratzen duenean...**
- a) Tarte bera uzten dugu alde bakoitzean
 - b) Tarte handiagoa uzten dugu begiradaren aldean
 - c) Tarte handiagoa uzten dugu begiradaren kontrako aldean
 - d) Doitu egiten dugu, 4 norabideetako batean ere tarterik ez uzteko
84. **Zoom objektibo batekin lan egiten denean, nola doitzen da fokua?**
- a) Angeluhandi-posizioan
 - b) Teleobjektibo-posizioan
 - c) Tarteko foku-distantzia batean
 - d) Objektiboa jarri baino lehen
85. **Bi norabideko mikrofonoek aurrealdeetan eta atzealdeetan dute sentikortasunik handiena, hau da, norabide hauetan:**
- a) $0^\circ - 180^\circ$
 - b) 90° eta 270°
 - c) 60° eta 180° .
 - d) 0° eta 45°
86. **Zer da pelikularen latitudea?**
- a) Zer koordenatutan grabatu zen
 - b) Sentikortasunaren muga
 - c) Tentsio bidez luzatzearekiko erresistentzia
 - d) Tenperatura handiekiko erresistentzia
87. **Zerua ilunago ikusiko genuke iragazki honekin:**
- a) Gorria
 - b) Berdea
 - c) Urdina
 - d) Gardena
88. **Zer kolore-tenperatura du zero hodeitsuak?**
- a) 3.000 K-etik behera
 - b) 3.500 K
 - c) 5.500 K
 - d) 6.000 K-etik gora

89. **Zer mikrofono mota erabili behar da elkarrizketa baten soinua hartzeko oso giro zaratatsuan?**
- a) Kanoia
 - b) Sentikortasun txikikoa, ahotik gertu jarria
 - c) Norabide orotakoa, distantzia ertainean jarria
 - d) Girokoa
90. **Ordenagailu-pantaila batean erabiliko dugun irudi bat zer bereizmenarekin sortzea komeni da?**
- a) Aurreko bietako edozein aski bereizmen onargarria da
 - b) Aurreko bietako bat ere ez da aski bereizmen onargarria
 - c) 72 pixel zentimetroko, baldin eta haren altuera eta zabalera zentimetrotan badago
 - d) 72 pixel hazbeteko, baldin eta haren altuera eta zabalera pixeletan badago
91. **Irudi digital baten erreprodukzio-kalitatea mantendu nahi badugu**
- a) Bereizmena handitzen badiogu, proportzio berean handituko diogu tamaina
 - b) Bereizmena aldatzen badugu, tamaina ere aldatu beharko dugu
 - c) Bereizmena aldatzen badugu, tamaina mantendu beharko dugu
 - d) Bereizmena gutxitzen badiogu, proportzio berean handituko diogu tamaina
92. **Zenbat tonu lor daitezke pixeleko 24 biteko kolore-sakonera (true color) duen irudi batekin?**
- a) 16 tonu
 - b) 256 tonu
 - c) 16.777.216 tonu
 - d) 65.536 tonu
93. **Zertarako erabiltzen da dithering teknika irudiaren tratamendu digitalean?**
- a) Bitmap motako fitxategiak deskonprimatzeko
 - b) Irudi batean erabiltzen den kolore kopurua murrizteko
 - c) Irudi batean erabiltzen den kolore kopurua proportzionalki handitzeko
 - d) Fitxategi bektorialak proportzionalki eskalatzeke
94. **Zein da arazo nagusia interneterako diseinatutako irudi bat berehala erreproduzitzeko?**
- a) Kolore kopurua, erabili beharreko nabigatzailearen arabera
 - b) Beraren tamaina, zentimetrotan
 - c) Beraren tamaina, bitetan
 - d) Kolore kopurua, kolore-triangeluaren arabera

95. **Zer adierazten du irudi jakin baten kolore-paletak?**
- a) Irudi jakin horren pixelen krominantziaren balioen kolore kopurua, balio absolutu gisa
 - b) Ordenagailu batek edozein irudi-fitxategi irudikatzeko erabiltzen duen kolore kopurua
 - c) Irudi jakin horren fitxategiari sartutako kolore kopurua, digitalki adierazi ahal izateko.
 - d) Gizakiaren begiak bereiz ditzakeen koloreen kopurua
96. **Bitmap motako irudi digital bat osatzen duten pixeletako bakoitzari dagokionez:**
- a) Haren balio kromatikoak eta argitasunekoak ez dira independenteak irudi osoa eratzen duten gainerako pixelekiko
 - b) Haren balio kromatikoak eta argitasunekoak independenteak dira irudi osoa eratzen duten gainerako pixelekiko
 - c) Haren argitasun-balioa —baina ez kromatikoak— independentea da irudi osoa eratzen duten gainerako pixelekiko
 - d) Haren balio kromatikoak —baina ez argitasunekoak— independentea da irudi osoa eratzen duten gainerako pixelekiko
97. **Pantailan grafikoki aurkezteko, zein modu da egokiena?**
- a) CMYK kolore modua
 - b) NET kolore modua
 - c) RGB kolore modua
 - d) TV kolore modua
98. **RGB kolore moduan, honela osatuta dago irudia:**
- a) Hiru kanal: gorria, berdea eta urdina, beltza kenduta
 - b) Hiru kanal: gorria, berdea eta urdina, eta beltza
 - c) Kanal bakar bat, gorria, berdea eta urdina barne hartzen dituen
 - d) Hiru kanal: gorria, berdea eta urdina
99. **LZW (Lemple-Zif-Welch)konpresio-formatua**
- a) Konpresio galeraduna deritzon tekniketako bat erabiltzen du, eta TIFF, GIF eta PDF motako fitxategiekin erabil daiteke
 - b) Formatu hori ez da existitzen irudiaren tratamendu digitalaren munduan
 - c) Galerarik gabeko konpresioa deritzon tekniketako bat erabiltzen du, eta JPEG motako fitxategiekin bakarrik erabil daiteke
 - d) Galerarik gabeko konpresioa deritzon tekniketako bat erabiltzen du, eta TIFF, GIF eta PDF motako fitxategiekin erabil daiteke
100. **Pixeleko 8 biteko kolore-sakonera (true color) duen irudi batekin zenbat tonu lor daitezke?**
- a) 16 tonu
 - b) 256 tonu
 - c) 65.536 tonu
 - d) 16.777.216 tonu

101. **TGA luzapena duen irudi-metaketako formatuak 32 biteko rgb kolore modua onartzen du:**
- a) Alfa kanalik gabe
 - b) Hiru alfa kanalekin
 - c) Bi alfa kanalekin
 - d) Alfa kanal batekin
102. **.JPG luzapena duen irudi-metaketako formatuak**
- a) Era guztietako alfa kanalak onartzen ditu
 - b) Ez du onartzen alfa kanalik
 - c) RGB moduan bakarrik onartzen ditu alfa kanalak
 - d) CMYK moduan bakarrik onartzen ditu alfa kanalak
103. **JPEG konpresio-formatuak (Joint Photographic Expert Group)**
- a) Konpresio galeraduna deritzon tekniketako bat erabiltzen du, eta TIFF, GIF eta PDF motako fitxategiekin erabil daiteke
 - b) Galerarik gabeko konpresioa deritzon tekniketako bat erabiltzen du, eta TIFF, GIF eta PDF motako fitxategiekin erabil daiteke
 - c) Konpresio galeraduna deritzon tekniketako bat erabiltzen du, eta JPEG motako fitxategiekin erabil daiteke
 - d) Irudiaren tratamendu digitalaren munduan existitzen ez den formatu bat erabiltzen du
104. **Bereizmena berdina izanik, zer irudik du bit kopururik txikiena?**
- a) 10 cm bider 12 cm tamainakoa,.JPEG formatukoa
 - b) 10 cm bider 12 cm tamainakoa,.TIF formatukoa
 - c) 10 cm bider 12 cm tamainakoa,.PSD formatukoa
 - d) 10 cm bider 12 cm tamainakoa,.TIP formatukoa
105. **Zein da arazo nagusia interneterako diseinatutako irudi bat berehala erreproduzitzeko?**
- a) Beraren tamaina, bitetan
 - b) Beraren tamaina, zentimetrotan
 - c) Kolore kopurua, erabili beharreko nabigatzailearen arabera
 - d) Kolore kopurua, kolore-triangeluaren arabera
106. **Sortzaile alfanumerikoen edizio-funtzioen artean roll dago. zer da?**
- a) Idazmakina-efektua
 - b) Hondotik pantailako lehenengo planora irtetearen efektua
 - c) Arrabol-efektua
 - d) Alfa efektua

107. **Irudi baten kliska-efektua, «flicker» delakoa, hauen txandakatzeak sortzen duen prozesu bat da:**
- a) Hautatutako bi irudien trukea
 - b) Ekorketa-lerroak NTSC sisteman
 - c) Eremu bikoitia eta bakoitia
 - d) 626 lerro PAL sisteman
108. **Pantone sozietateak sortutako sistemak ehunka kolorez osatuta dago, guztiak ere oinarritzko zortzi koloretatik eratorriak. Nola lor daiteke kolore horietako bakoitza?**
- a) Aldi berean zenbait kolore erabiliz, ehunekoak nahasiz
 - b) Hiru kolore nahasiz eta mg-tan dosifikatuz
 - c) Oinarritzko tintak ehunekotan dosifikatuz
 - d) Ezinezkoa da Pantone koloreak lortzea
109. **Irudiaren tratamendu digitalean, zer esan nahi du CMYK siglak?**
- a) Kuatrikomian erabiltzen diren oinarritzko koloreen laburtzapen konbentzionala da
 - b) Telebista konbentzionalan erabiltzen diren oinarritzko koloreen laburtzapen konbentzionala da
 - c) Pantoneren zuzeneko koloreen laburtzapena
 - d) Telebista digitaleko formatu digitaletarako laburtzapena
110. **Letra bat bitmap formatu batera eramanez digitalizatzen dugunean eta asko handitzen dugunean, haren inguruetan gertatzen diren aldaketa batzuk ikusten ditugu. zer izen dute aldaketa horiek?**
- a) Clamping-a
 - b) Koadroak
 - c) Aliassing-a
 - d) Antialiassing-a
111. **Ba al dakizu zer letra-familia garatu zen europako erdialdean erdi arotik gaur egun arte?**
- a) Ingelesa
 - b) Garamond
 - c) Gotikoa
 - d) Italikoa
112. **Bideo-kamera bat erabiliz, konbinazio hauetako zeinekin izango dugu eremu-sakonerarik txikiena?**
- a) Foku-distantzia luzea eta diafragmaren f/16 irekidura.
 - b) Foku-distantzia laburra eta diafragmaren f/16 irekidura.
 - c) Foku-distantzia luzea eta diafragmaren f/1,4 irekidura.
 - d) Foku-distantzia laburra eta diafragmaren f/1,4 irekidura.

113. **Nola gutxitzen da eremu-sakonera argazki batean?**
- a) Diafragma irekiz.
 - b) f zenbaki handiago bat erabiliz.
 - c) Objektua urrunduz.
 - d) Argazkiei ukituak emateko programa bat erabiliz; adibidez, Adobe Photoshop.
114. **Telebista-estudio batean bagaude eta «dolly»a eskatzen badigute, zer emango dugu?**
- a) Tripode pneumatiko bat.
 - b) Idulki bat.
 - c) Tripode tolesgarri bat.
 - d) Tripodea jartzeko euskarri gurpildun bat.
115. **Zein da Full HD deritzon bereizmena?**
- a) 1280 x 1080.
 - b) 1536 x 1024.
 - c) 1920 x 1080.
 - d) 1280 x 720.
116. **Zein da PAL estandarraren jatorria?**
- a) Alemania.
 - b) Frantzia.
 - c) Estatu Batuak.
 - d) Japonia.
117. **Areto batean soinu-uhinaren islapenek eragiten dutenean uhina entzulearengana 50 ms-ko atzerapenarekin iristea, hau gertatzen da:**
- a) Erreberberazioa.
 - b) Oihartzuna.
 - c) Phasing-a.
 - d) Antinodoa
118. **Nola doitzen da kolore-tenperatura?**
- a) Pelikularen sentikortasunarekin.
 - b) Diafragma doituz.
 - c) Zurien balantzearekin.
 - d) Objektiboaren foku-distantzia doituz.
119. **Esposizio ona duen argazki batean esposizio-denbora laurdenera murrizten badugu, zer egin beharko dugu berriro esposizio ona izan dezan?**
- a) f zenbakia erdira ekarri.
 - b) f zenbakia bikoiztu.
 - c) f zenbakia laurdenera ekarri.
 - d) Urrats bat gutxitu f zenbakia.

120. **Irudi digital batean, erabilitako kolore moduari dagokion kolore-osagaietako bakoi-tza modu independentean erabiltzen da Adobe Photoshop aplikazioan. Non?**
- a) Beste fitxategi batean.
 - b) Geruza berri batean.
 - c) Beste kanal batean.
 - d) Beste panel batean.
121. **Adobe Premieren, zer izen du osagai grafikoak eta soinu-osagaiak jartzeko leihoak?**
- a) Bideo-lerroa.
 - b) Editatze-arloa.
 - c) Denbora-lerroa.
 - d) Editatze-lerroa.
122. **Zer objektibo hautatu behar litzateke urruneko objektu baten xehetasun baten argazkia egiteko?**
- a) 28-50 zooma.
 - b) Foku-distantzia laburreko objektibo bat.
 - c) Foku-distantzia luzeko objektibo bat.
 - d) «Arrain-begi» objektibo bat.
123. **Bideo-hartze batean, objektu baten irudia aratz mantentzeko objektiboaren foku-distantzia aldatzean:**
- a) Lehenik, foku-distantziarik luzeenarekin fokuratuko dugu, diafragma erabat itxita dagoela.
 - b) Lehenik, foku-distantziarik laburrenarekin fokuratuko dugu, diafragma erabat irekita dagoela.
 - c) Lehenik, foku-distantziarik laburrenarekin fokuratuko dugu, diafragma erabat itxita dagoela.
 - d) Lehenik, foku-distantziarik luzeenarekin fokuratuko dugu, diafragma erabat irekita dagoela.
124. **Nola adierazten da argi-iturri baten kolore-tenperatura?**
- a) Gradu zentigradutan
 - b) Kelvinetan
 - c) Fahrenheit gradutan
 - d) ISO gradutan
125. **Lanpara halogenoz argizatutako barnealde batean, zer iragazki hautatu behar da zurien doikuntza (White Balance) egokia lortzeko?**
- a) 3.200 K
 - b) 5.600 K
 - c) 5.600 K + ND
 - d) 5.600 K + % 20 ND

126. **4 x 5 hazbeteko original bat eskaneatu behar badugu 8 x 10 tamainara handitzeko, zer bereizmenarekin eskaneatu behar da originala baldin eta amaierako irudiak 300 ppp-ko bereizmena izatea eskatzen badigute?**
- a) 300 ppp
 - b) 600 ppp
 - c) 150 ppp
 - d) 1.200 ppp
127. **Irudi batek zer bereizmen izatea gomendatzen da inprimatzean kalitaterik onena izateko?**
- a) 72 ppp
 - b) 300 ppp
 - c) 600 ppp
 - d) 1.200 ppp
128. **Zer argi-tenperatura dago egun-argitik gertuena?**
- a) 3.200 eta 3.400 kelvin artekoa
 - b) 5.400 eta 6.000 kelvin artekoa
 - c) 7.000 eta 7.200 kelvin artekoa
 - d) 8.000 eta 8.400 kelvin artekoa
129. **Iragazki hauetako zein da opakuen?**
- a) 1 dentsitatekoa
 - b) 4 dentsitatekoa
 - c) -1 dentsitatekoa
 - d) -4 dentsitatekoa
130. **Jakin daiteke argiztapen-foku bat FRESNEL leiar batez hornituta dagoela baldin eta, hari begiratzean, hau ikusten badugu:**
- a) Zirkulu zentrokideak.
 - b) Bilbe errektangular bat.
 - c) Kolorezko estaldura bat.
 - d) Begi hutsez ezin da zehaztu.
131. **Telebista-kamera baten obturadore elektronikoaren (shutter-aren) abiadura handitzeak zer efektu eragiten du irudiaren argitasunean?**
- a) Handitu egiten du.
 - b) Gutxitu egiten du.
 - c) Ez dio eragiten argitasunari.
 - d) Faktore finko batez biderkatzen du.

132. **Zer kolore du ND iragazkiak (Neutral Density / Dentsitate neutroa)?**
- a) Gorria
 - b) Berdea.
 - c) Urdina.
 - d) Grisa
133. **Nola egiten da Chroma Key funtzioa edizio ez-linealetan?**
- a) Kolore urdina bakarrik erauziz
 - b) Kolore gorria bakarrik erauziz
 - c) Kolore berdea bakarrik erauziz
 - d) Edozein kolore erauziz
134. **CSS estilo baten zer parametrok definitzen du nola doan testu bat (arruntean, azpi-marratuan, ezabatuan...)?**
- a) Text-layout.
 - b) Text-outline.
 - c) Text-indent.
 - d) Text-decoration.
135. **Nola maketatuko zenuke elementu-zerrendatze bat erabat atzigarria izan behar duen web-orri batean?**
- a) Taula batekin, maketazioa hobeto kontrolatzeko.
 - b) Zerrenda batekin.
 - c) Ahalik eta modurik sinpleenean, bata bestearen azpian idatziz.
 - d) Aurreko moduetako edozein erabiliz, denak atzigarriak baitira.
136. **Digitalki betetzeko inprimakiak sor daitezke PDF formatuan?**
- a) Bai.
 - b) Ez.
 - c) HTML batetik abiatuta bakarrik.
 - d) Word dokumentu batetik abiatuta bakarrik.
137. **Zer da Story-Board delakoa?**
- a) Animaziozko ikus-entzunezko baten sinopsia
 - b) Ilustrazio sorta bat, sekuentzia gisa erakutsia istorio bat ulertzeko gida moduan bali dezan.
 - c) Itsas zinemari buruzko gidoi bat.
 - d) Animazio-film baterako gidoi bat

138. **Seinale orekaturako jack konektore batek zenbat pin ditu?**
- a) 1 pin.
 - b) 2 pin.
 - c) 3 pin.
 - d) 4 pin.
139. **1,6 foku-distantzia duen reflex kamera digital batean 35 mm-ko reflex kamera analogiko batetik datorren 135 mm-ko objektibo bat erabiltzen badugu:**
- a) 1,6z zatitu beharko dugu haren foku-distantzia erreala jakiteko.
 - b) 1,6z biderkatu beharko dugu haren foku-distantzia erreala jakiteko.
 - c) Sortutako irudiak tamaina handiagoa izango du, berdin dio faktorea zein den.
 - d) Diafragmaren gehieneko irekidura murriztu egingo da, 1,6z zatituko baita.
140. **Zer da RAW formatua?**
- a) Irudi digitalen fitxategi-formatu bat, konpresio minimokoa.
 - b) Irudi digitalen fitxategi-formatu bat, batere konpresiorik gabekoa beti.
 - c) Irudi digitalen fitxategi-formatu bat eskuarki batere konpresiorik ez duena, kasuren batean edo marka jakin batean konpresio minimo bat izan badezake ere.
 - d) Irudi digitalak gordetzeko formatu estandarizatu eta etorkizunekoa.
141. **DVD baten audio analogikoaren irteerako inpedantzia:**
- a) Ertaina da.
 - b) Baxua.
 - c) Aldagarria da beraren 5,1 kanaletako bakoitzean.
 - d) Handia da.
142. **Zer erabili behar da Larsen efektua saihesteko?**
- a) Sentikortasun txikiko norabide orotako mikrofonoak.
 - b) Sentikortasun txikiko norabidezko mikrofonoak.
 - c) Sentikortasun handiko norabidezko mikrofonoak.
 - d) Sentikortasun handiko norabide orotako mikrofonoak.
143. **Objektibo hauetako batek perspektiba puzten du. Zein da?**
- a) Teleobjektiboa.
 - b) Objektibo angeluhandia.
 - c) Objektibo estandarra.
 - d) 50 mm.
144. **Kolore gorriko iragazki zuzentzaile batek zer koloretako argia xurgatuko du?**
- a) Bat ez.
 - b) Berdea.
 - c) Gorria.
 - d) Ziana.

145. **Kolore modu hauetako zein ez da agertzen argazkiei ukituak emateko Adobe Photoshop aplikazioan?**
- a) YUV.
 - b) Duotonua.
 - c) CMYK.
 - d) Indexatua.
146. **Fotografia digitalean, zer adierazten digu histogramak?**
- a) Sistema optikoa doitzeko parametro bat.
 - b) Kameran argazkia egiteko hautatutako doikuntzen informazioa.
 - c) Eszena bateko argitasunaren banaketa erakusten duen grafiko bat.
 - d) Argazkiaren fokuratze-kalitatearen informazioa.
147. **Objektibo bat distantzia jakin batera fokuratzen bada, zer izen du puntu horren aurrean eta atzean dagoen zona aratzak?**
- a) Foku-distantzia.
 - b) Foku-sakonera.
 - c) Eremu-sakonera.
 - d) Foku-angelua.
148. **Zer iragazki erabiliko zenuke islak ezabatzeko gainazal ez-metalikoetan?**
- a) UV iragazki bat.
 - b) Polarizazio-iragazki bat.
 - c) ND iragazki bat.
 - d) Kolore-iragazki bat.
149. **Zer erantzun izan behar dute «lavalier» mikrofonoek (paparreko mikrofonoek)?**
- a) Norabide orotakoa da.
 - b) Norabidezkoa.
 - c) Superkardioidea.
 - d) Oso norabidezkoa.
150. **Mikrofono kardioidea...**
- a) Norabide orotakoa da.
 - b) Norabide bakarrekkoa da.
 - c) Bi norabidekoa da.
 - d) Oso norabidezkoa.
151. **Eszena bat pertsonaiak dauden tokitik baino goragoko altuera batetik hartzen denean, zer izen du plano horrek?**
- a) Plano amerikarrak.
 - b) Behetik gorakoa.
 - c) Goitik beherakoa.
 - d) Xehetasuneko plano.

152. **Zein da, bideoan, emultsioaren pikorraren baliokidea?**
- a) Zarata.
 - b) Sentikortasuna.
 - c) Irabazia.
 - d) Pixela.
153. **Bideo-formatu hauetako zein EZ da digitala?**
- a) D9
 - b) DVCAM
 - c) Betacam SP
 - d) Betacam SX
154. **Zer da ekorketa bat?**
- a) Plano bat oso laburra.
 - b) Plano orokor bat.
 - c) Panoramika geldi bat.
 - d) Panoramika bat oso lasterra.
155. **Plano amerikarra...**
- a) Plano ertaina baino txikiagoa da
 - b) Plano ertainaren berdina da
 - c) Plano orokorra baino handiagoa da
 - d) Plano ertaina baino handiagoa da
156. **Adierazi zein den kolore-espaziorik egokiena aurkezpen multimedia baterako**
- a) CMYK
 - b) RGB
 - c) Lab
 - d) Duotone
157. **Photoshopen, zertarako erabiltzen da «inguratu» komandoa hautatutako zona batean?**
- a) Hautatutako zona handitzeko
 - b) Hautatutako zona konprimatzeko
 - c) Hautatutako zona leuntzeko edo biribiltzeko
 - d) Irudia hautatutako zona horretatik ebakitzeko
158. **Gailu hauetako zeinekin ezin da bideoa eskuratu?**
- a) USB ataka batekin
 - b) Bideo analogikoko sarrera batekin
 - c) Fireware atakarekin
 - d) SCSI ataka batekin

159. **Hau da RAW formatua erabiltzearen abantailetakoa bat:**
- a) Fitxategien tamaina txikiagoa denez, irudi gehiago metatu daitezke txartel bakoitzean.
 - b) Fitxategi hauek emaitzarik onenak ematen dituzte kameratik zuzenean inprimatzeko.
 - c) Aukera ematen dute kliskatze-parametroak aldatzeko —zurien balantzea, adibidez— argazkia egin ondoren.
 - d) Formatuak ez du behar bihurketarik ia inongo software-aplikaziotan erabiltzeko.
160. **Zer izen du sekuentzia bidez zenbakitutako gidoiaren garapen eskematikoak?**
- a) Sinopsia.
 - b) Eskaleta.
 - c) Ideia.
 - d) Gidoi teknikoa.
161. **SPDIF audio-konektore ardazkide baten audio-kalitate digitala:**
- a) SPDIF optikoarena baino hobea da.
 - b) SPDIF optikoaren kalitatearen berdina da.
 - c) SPDIF optikoarena baino okerragoa da.
 - d) Konektore ardazkideak ez dira SPDIF.
162. **Argazkiei ukituak emateko Adobe Photoshop aplikazioan, non kopiaetzen da arbelaren edukia itsatsi komandoa exekutatzean?**
- a) Uneko geruzan.
 - b) Geruza berri batean.
 - c) Kanal berri batean
 - d) Geruza-maskara berri batean.
163. **Formatu hauetako zeinek konprimatzen du gehien argazki bat?**
- a) TIFF.
 - b) RAW.
 - c) JPEG.
 - d) DNG.
164. **Zer da travelling paraleloa izeneko kamera-mugimendua?**
- a) Kamera horizontalean biratzea eskuinerantz edo ezkerrerantz.
 - b) Kamera okertzea, gorantz edo beherantz begiratu dezan.
 - c) Kamera gorantz eta beherantz mugitzea garabia erabiliz.
 - d) Kameraren alborantzko mugimenduak, eskuarki euskarri gurpildun baten gainean.

165. **Zer da HDR sigla?**

- a) Tarte dinamiko handiko argazkia.
- b) Bereizmen handiko argazkia.
- c) Tarte bikoitzeko histograma.
- d) Tonu gorri iluna.

166. **Zer da kolore-sakonera edo bitak pixeleko?**

- a) Eszena batean nagusitzen den kolorea.
- b) Irudi digital batean pixel baten kolorea irudikatzeko behar den informazio-biten kopurua.
- c) Kamera baten pixel kopurua.
- d) Irudiaren pixel baten RGB balioa.

167. **Noiz ager daiteke moiré efektua?**

- a) Aldizkari edo egunkari baten irudi bat eskaneatzen dugunean.
- b) Argazki-laborategi bateko printer batean inprimatutako irudi bat eskaneatzen dugunean.
- c) Inprimategiko irudi bati bilbea kentzeko iragazkia aplikatzen diogunean.
- d) Inprimategiko irudi bati «discreen» iragazkia aplikatzen diogunean.

168. **Zer da hobe, pelikula fotografikoa eskaneatzea edo haren paperezko kopia eskaneatzea?**

- a) Paperezko kopia eskaneatzea, pelikularen tamaina baino azalera handiagoa baitu.
- b) Argazki-pelikula eskaneatzea, tarte dinamiko handiagoa baitu paperezko kopiak baino eta, ondorioz, bereizmen handiagoan eskaneatzeko aukera ematen baitu.
- c) Paperezko kopia eskaneatzea, argazki-pelikulak baino tarte dinamiko txikiagoa duenez moiré efektua agertzea saihesten baita.
- d) Eraitza berdina da beti, baldin eta pelikulak eta paperezko kopiak tamaina bera badute.

169. **Zein da bideo-formatu egokia DVD bat sortzeko?**

- a) AVI
- b) DV
- c) MPG2.
- d) MPG1

170. **Formatu hauetako zein da egokiena bideo bat Internet bidez ikusteko?**

- a) Mpg4.
- b) Mpg2
- c) JPG
- d) AVI

171. **Zeren bidez egokitzen da eszenaren kolore-tenperatura kamerara?**
- a) Konbergentzia-gutun baten bidez
 - b) Gen-Lock baten bidez
 - c) Zurien balantzearen bidez
 - d) CTB edo CTO iragazkien bidez
172. **Zer foku-luzera du giza begiaren ikuspena erreproduzitzen duen objektibo batek?**
- a) 6-18 mm bitartean
 - b) 18-40 mm bitartean
 - c) 40-60 mm bitartean
 - d) 60 mm-tik aurrera
173. **Zer ematen du argi gorria eta berdea batzeak?**
- a) Horia.
 - b) Morea.
 - c) Magenta.
 - d) Beltza
174. **Zer muga dituzte FAT 32 partizioa duten diskoek bideo analogikoa eskuratu nahi dutunean?**
- a) Ez dute audioa eskuratzen
 - b) Ez dituzte ikusten irudiak eskuratu bitartean
 - c) Ezin dute eskuratu 4 GB-tik gorako fitxategirik
 - d) Ez dute inongo mugarik
175. **HTML lengoaian, iturburu-kodearen goialdean, marka batzuk daude, web-orri bati buruzko funtsezko informazio bat ematen dutenak. Bilaketa-motor gehienek irakurtzen dituzte, web-orriak katalogatzeko. Hauek dira:**
- a) Cookieak
 - b) Hiperestekak
 - c) Meta tag-ak
 - d) Pluginak
176. **Zer HTML etiketa erabiliko zenuke Interneteko helbide baterako esteka bat definitzeko?**
- a) Adress
 - b) Url
 - c) Href
 - d) Blockquote

177. **Web-orri bati estiloak emateko (letra-tipoa, kolorea, posizioa...) zer erabiliko zenuke?**
- a) Java Script
 - b) CSS
 - c) XSL
 - d) XML
178. **Formatu hauetako zein da egokiena irudiak web-orri batean argitaratzeko?**
- a) RAW
 - b) TIFF
 - c) DNG
 - d) PNG
179. **Nola landu beharko zenuke offset bidez inprimatzekoa den irudi bat?**
- a) RGB
 - b) CMYK
 - c) Kolore indexatua
 - d) CYK
180. **Zer formatu izan behar luke lehenespenez offset bidez inprimatzekoa den irudi batek?**
- a. GIF
 - b. TIFF
 - c. PNG
 - d. RAW
181. **Kolore indexatu batean, daukan gehieneko kolore kopurua hau da:**
- a) 32
 - b) 256
 - c) 16 milioi
 - d) 16.000
182. **Zer erabiliko zenuke fokuratze bat egiteko objektiboaren gutxieneko fokuratze-dis-tantziaren azpitik gaudenean?**
- a) Zoom bat.
 - b) Hedapen-eraztun bat.
 - c) Teleobjektibo bat.
 - d) «Arrain-begi» objektibo bat.
183. **Zeri deritzo sekuentzia-planoa?**
- a) Jarraitasunean, planoen arteko ebakirik gabe filmatutako sekuentzia bati
 - b) Itzaltze bidez lotutako planoen sekuentzia
 - c) Ebaketa bidez lotutako planoen sekuentzia
 - d) Plano orokor bat

184. **Zer da «Flash Back»a ikus-entzunezko narratiban?**
- a) Istorio baten kronologia aldatzea ekintza iraganera eramanez
 - b) Narratzailea erabiltzea istorioan
 - c) Istorio baten kronologia aldatzea ekintza etorkizunera eramanez
 - d) Pertsonaia batek aspaldi gertatu zaion istorio bat kontatzea
185. **Objektu bat fokuratzen baduzu, zer izen du optika batek objektu horren aurretik zona bat eta haren atzetik beste bat fokuratuta erakusteko duen propietateak?**
- a) Eremu-sakonera
 - b) Fokuratze-puntua
 - c) Ikuspen-angelua
 - d) Ikuspen-irekidura
186. **Zer da «raccord»a?**
- a) VCR grabagailua
 - b) Planoen trantsizio logikoa
 - c) Planoen ikusizko elementuen jarraitutasuna
 - d) Bi erreproduzigailuz eta grabagailu batez egindako editatzea
187. **Zuria, bideoan, hau da:**
- a) Hauen batura: % 30 R-tik + % 59 G-tik + % 11 B-tik
 - b) $R + G + B \% 75$ ean
 - c) $R + G + B \% 33,33$ an
 - d) Ekipamendu bakoitzean fabrikatzailearen doikuntzek definitutakoa
188. **Zer da pixel bat?**
- a) Irudi elektronikoaren gutxieneko unitatea
 - b) Diseinu digitaleko programen tresna bat
 - c) Bideo-grabazio bateko frame bat
 - d) Irudi-fitxategien unitatea
189. **Zer da Lavalier mikrofonoa?**
- a) Mikrofono berezi bat da, haize handiko egunetan erabiltzekoa
 - b) Uretatik bereziki babestuta dagoen mikrofono bat
 - c) Lepotik, paparretik edo gorbatatik zintzilikatze diseinatutako mikrofono bat
 - d) Ez dago halako mikrofono motarik

190. **Zein d(ir)a CCUaren funtzioa(k)?**
- a) Bideo-kameraren seinaleak urrutitik doitzeko eta kontrolatzeko aukera ematea
 - b) Bideo-iturri batzuetatik datozen seinaleak bateratzea eta homogeneousatzea
 - c) Zurien balantzzea egin ahal izatea ENG kameretan
 - d) CCDak duena, hau da, irudia pulstu elektriko bihurtzea, baina kalitate handiagoarekin
191. **Diafragma-irekiduren eskala normalizatu honetan, «x» letrak falta den urrats bat adierazten du. Zein da? 1,4 2 2,8 4 5,6 8 (x) 16 22**
- a) x-ri 9,5 zenbakiko urratsa dagokio
 - b) x-ri 10 zenbakiko urratsa dagokio
 - c) x-ri 11 zenbakiko urratsa dagokio
 - d) x-ri 13 zenbakiko urratsa dagokio
192. **Arrain-begi batek**
- A. Irudia deformatuko digu
 - B. Eredu-sakonera konprimatuko digu
 - C. Irudiaren paralelismoa zuzenduko digu
 - D. Aurrekoetako bat ere ez
193. **Zer egin behar dugu kameran eszena baten kolore-tenperatura handitzeko?**
- A. Iragazki laranja bat jarri
 - B. Dentsitate neutroko iragazki bat jarri
 - C. Iragazki urdin bat jarri
 - D. Aurrekoetako bat ere ez; diafragma irekiz konpontzen da
194. **Editatze ez-linealetan, zer izen du trantsizio, titulu, efektu eta abarren datuak irudi ikusgarri bihurtzen dituen prozesuak?**
- a) Cropping
 - b) Keyer
 - c) Bistaratzeta
 - d) Render
195. **AVI luzapena duen fitxategi batean, zer formatu dute bideoak eta audioak?**
- a) Bat ere ez, AVI editore digitalen marka bat da
 - c) Bideoa MPG4n dago beti, eta audioa AIFFn
 - c) Bideo- eta audio-formatua (codec) edozein izan daiteke
 - d) Bideoa MPG4n dago beti, eta audioa WAVen

196. **Webari dagokionez, zein da 'AAA' egokitze-maila?**
- a) Erabat dinamikoak izateko diseinatutako orriak dira, audio, animazio eta jarduera paralelo asko dituztenak.
 - b) 3 lehentasun-maila onartzen duten orriak dira. WAIk erabilerraztasunari buruz eza-rritako estandarrera gehien egokitzen direnak dira. Desgaitasunen bat duten pertso-nentzat erabilera-arazo gutxienak dituzten orriak dira.
 - c) Web-orriei adinaren arabera ematen zaien katalogazioa da; haurrek ikusteko disei-natuta daude hala testuak nola irudiak
 - d) WIDOk (Web-diseinatzaileen Nazioarteko Erakundea) web-orriarik onenen nazioar-teko zerrenda bat argitaratzen du urtero. Saridunek A hirukoitza sar dezakete beren web-atarietan.
197. **Baieztapen hauetako zein da egia DVDari dagokionez?**
- a) Alde bakarreko eta geruza bikoitzeko DVD+RW batean, eskuarki 15,92 GB-raino gra-ba daitezke
 - b) DVDetan: +R direnetan, zuloak 0 logikoak dira; -R direnetan, berriz, zuloak 1 logi-koak dira
 - c) DVD-RAM bat irakurtzekoa baino ez da, eta, gainera, prentsa bidez egiten dira
 - d) Ongi sortutako DVD batek UDF eta ISO 9660 fitxategi-sistemen araberrako datuak eduki ditzake
198. **Hauen artean zein da protokolorik eraginkorrena komunikazio-sare bidez datuak emateko eta bideo-streamingerako egokia dena?**
- a) UDP
 - b) TCP
 - c) http
 - d) SNMP
199. **Elementu hauetako zeinek ezaugarritzen duten hobekienik konfigurazio multime-dia bat?**
- a) AGP busa, cache handia eta MMX jarraibideak edo haien ondorengoak
 - b) USB busa, SCSI diskoa eta multiprozesadore euskarria
 - c) 100 MHz-eko bus lokala, SDRAM memoria, IDE diskoa
 - d) ATX plaka, AGP busa, USB busa
200. **Nola definituko zenuke «nadir» izeneko planoa?**
- a) Kamera behetik zeharka jartzea, pertsonaiaren begiak baino beherago. Kamera pix-ka bat gorantz orientatuta dago
 - b) Kamera pertsonaiaren gainean dago erabat, angelu perpendikularrean harekiko
 - c) Kamera pertsonaiaren azpian dago erabat, angelu perpendikularrean zoruarekiko
 - d) Kamera pixka bat okertua egotea; eskuarki, 45°-ko angeluan

201. **Zertarako balio du bideo-kamera autonomoen 48 V-eko elikadurak (phantom)?**
- a) Kanpo-monitore bat elikatzeke
 - b) Kondentsadore-mikrofono bat elikatzeke
 - c) Beste bideo-kamera bat elikatzeke
 - d) Argi-foku nagusia elikatzeke
202. **CRT monitore baten espezifikazioetan, zeri dagokio «21 hazbete» adierazpena (adibidez)?**
- a) Pantailaren zabalera.
 - b) Pantailaren altuera.
 - c) Pantailaren diagonalaren neurria.
 - d) Pantaila-hondoa.
203. **Diafragmaren irekidura edozein dela ere, eta objektiboa edozein dela ere, eremu-sakoneraren txikiagoa da beti:**
- a) Kamera motibotik zenbat eta hurbilago egon.
 - b) Kamera motibotik zenbat eta urrunago egon.
 - c) Diafragma bera erabiltzen badugu, eremu-sakonera ez da aldatzen.
 - d) Diafragma irekidura handienekoa bada, eremu-sakonera txikiagoa izango da beti.
204. **Soinu-norabidezkotasanari dagokionez, tonu altuak:**
- a) Tonu baxuek baino norabidezkotasan txikiagoa dute.
 - b) Tonu guztiak berdin hedatzen dira norabide guztietan eta berdin hautematen dira.
 - c) Tonu baxuek baino norabidezkotasan handiagoa dute.
 - d) Soinu-norabidezkotasa sistema estereofonikoetan edo multifonikoetan bakarrik hautematen da.
205. **Nola deritza zerra-hortz erako soinu-seinaleari?**
- a) Zarata zuria
 - b) Zarata arrosa
 - c) Zarata beltza
 - d) Zarata metalikoa
206. **Zer izen dute ekintza dramatiko baten jarraitutasunean akats bat izanez gero konponbidea emateko grabatzen diren planoak?**
- a) Plano osagarria
 - b) Baliabide-planoa
 - c) Giro-planoa
 - d) Plano gehigarria

207. **Zer da argiztapen-triangelua?**
- a) Argi nagusia, hondoko argia eta kontrako argia
 - b) Argi nagusia, kontrako argia eta argi betegarria
 - c) Argi nagusia, argi lausoa eta kontrako argia
 - d) Argi nagusia, argi lausoa eta argi betegarria
208. **Argazki digitaleko kameretan, erabiltzen al da ISO sentikortasunaren kontrola?**
- a) Pelikula erabiltzen duten kamera konbentzionaletan bezala.
 - b) Kamera digitalek ez dute halako kontrolik.
 - c) Erabiltzen da, baina beste funtzio batzuetarako.
 - d) Kolore-erroreak zuzentzeko erabiltzen da.
209. **Zer motatakoa da DVD bideoan erabilitako bideo-konpresioko sistema?**
- a) MPEG-2
 - b) MPEG-4
 - c) MPEG-1
 - d) VOB
210. **Klima-kondizioak oso gogorrek direnean, zer mikrofono mota erabili behar litzateke?**
- a) Dinamikoa, eta ez kondentsadoreduna.
 - b) Kondentsadoreduna, eta ez dinamikoa.
 - c) Bi mota horiei ez diete nabarmenki eragiten klima-kondizio oso gogorrek.
 - d) Elektret bat, eta ez kondentsadoredun bat.
211. **Bideo-kamera bat erabiltzen ari gara pertsonak grabatzeko. Zer ulertuko genuke «fokura ekarri» esanda?**
- a) Eszena fokuratzea.
 - b) Kameratik gertuen dagoen pertsonagana aldatzea fokuratzea.
 - c) Eszenako lehen planoan dagoen pertsonagandik eszenaren hondoan dagoen beste batengana aldatzea fokuratzea.
 - d) Kamera objektura hurbiltzea.
212. **Zuzenean objektu baten gainean jotzen duen argia zer da?**
- a) Argi erasotzailea
 - b) Argi polarizatua
 - c) Argi betegarria
 - d) Argi errebotatua
213. **Zein da argi-fluxuaren unitatea?**
- a) Watteko lumena (lumen zati watt).
 - b) Watta.
 - c) Lumena.
 - d) Kandela.

214. **Zer da kanoi-mikrofonoa?**

- a) Oso norabidezotasun handiko mikrofono bat, distantzia handian sortutako soinuak hartzeko gai dena.
- b) Norabide orotako mikrofono bat, askotariko soinuak hartzeko gai dena.
- c) Kalitate eta erresistentzia handiko mikrofono bat, gerretan erabiltzen dena.
- d) Norabide bakarreko eta kalitate gutxiko mikrofono bat.

215. **Zer adierazten du «https:»k URLaren hasieran?**

- a) Webgune horretako konexioa abiadura handikoa dela, banda-zabalera handia dute-lako.
- b) Webgune horretako konexioa segurua dela zifratuta dagoelako.
- c) Zerbitzari birtualetan ostatatuta dagoen webgune bat dela.
- d) Webgune zahar bat dela, Interneteko cachean baino ez dagoena.

216. **Zerekin erlazionatuta dago soinu-uhinaren anplitudea?**

- a) Tinbrearekin.
- b) Bolumenarekin eta harmonikoekin.
- c) Harmonikoekin.
- d) Bolumenarekin.

217. **Zer audio-konpresiok sortzen du galera?**

- a) WAV
- b) AAC
- c) MPEG-4 DTS
- d) AIFF

218. **Zer beste izen ditu IEEE 1394 interfazeak?**

- a) Firewire eta USB
- b) Firewire eta i.Link
- c) UltraUSB
- d) Ataka paraleloa

219. **Zeren bidez neurtzen da audio digitala?**

- a) Soinu-maiztasunaren eta intentsitatearen bidez.
- b) Laginketa-maiztasunaren eta intentsitatearen bidez.
- c) Laginketa-maiztasunaren eta bit-sakoneraren bidez.
- d) Bit-sakoneraren eta intentsitatearen bidez.

220. **Midi teknologiaren bidez, hau egin daiteke:**

- a) Audio digitalaren edizioa eta postprodukzioa.
- b) Audio-nahaste estereoak eta pista anitzekoak.
- c) Audioaren monitorizazio digitala.
- d) Gailu eta musika-tresna elektronikoen arteko aginduak eta komunikazioak.

221. **www-aren oinarritzko lengoaiaren zer bertsiok erabiltzen ditu codec-ak multimedia-edukiak erakusteko?**
- a) Java
 - b) HTMLS
 - c) XML
 - d) FLASH 12
222. **Chroma-Key-a eszenaren parte bat bereiztea da. Nola egiten da?**
- a) Luminantzia bereiziz.
 - b) Kolore urdina bereiziz.
 - b) Kolore urdinaren azpigarraiatazalea bereiziz.
 - d) Krominantzia bereiziz.
223. **Audio-konpresoreek:**
- a) Automatikoki doitzen dute seinalearen tarte dinamikoa.
 - b) Seinalea konprimatzen dute euskarri magnetikoetan garraiatzeko.
 - c) Erregistratutako soinu-espektroaren maiztasun faltsuak ezabatzen dituzte.
 - d) Grabatutako maiztasun guztien maila 0 dB-era doitzen dute.
224. **Zein da audio-sistema baten modulazio-tarte normala?**
- a) -20 dB eta 0 dB artean.
 - b) 0 dB eta 20 dB artean.
 - c) -20 dB eta 1 dB artean.
 - d) 1 dB eta 20 dB artean.
225. **Zer leihotan antolatzen dira editatu beharreko proiektuaren elementu guztiak, gero zerrenda edo ikono gisa erakutsiko direnak?**
- a) Canvas.
 - b) Browser.
 - c) Bisorea.
 - d) Oihala.
226. **Audioa nahasteko mahai batean, «SOLO» teklarekin:**
- a) Dagokion kanaleko seinalea soloko bus batera eraman daiteke.
 - b) Nahaste-kontsolaren automatizazio dinamikoa kontrolatzen da.
 - c) Hautatzen da zer kanal editatuko den.
 - d) Isildu egiten da dagokion kanala.

227. **Bideo-kamerarekin irudiak grabatzean, zenbait faktore izan behar ditugu kontuan; eremu-sakonera da haietako bat. Eremu-sakonerari dagokionez, adierazi zein den haren arau nagusietako bat:**
- a) Fokuratu beharreko objektua kameratik zenbat eta gertuago egon, hainbat handiagoa da eremu-sakonera.
 - b) Diafragmaren irekidura zenbat eta txikiagoa izan, hainbat handiagoa da eremu-sakonera.
 - c) Objektiboaren foku-distantzia zenbat eta txikiagoa izan, hainbat txikiagoa da eremu-sakonera.
 - d) Fokuratu beharreko objektua zenbat eta urrutiago egon, hainbat txikiagoa da eremu-sakonera.
228. **Zertarako balio du bideo-/datu-proiektagailu baten zoomak?**
- a) Irudiak xeheago ikusteko eta soinua hobetzeko.
 - b) Bereizmen txikiago batera aldatzeko pixel kopurua handituz.
 - c) Proiektzioaren tamaina aldatzeko.
 - d) Pantailaren tamaina aldatzeko.
229. **Audio-seinalean, zer da ekualizadorea (EQ)?**
- a) Audio-seinalearen maiztasun batzuk ahultzeko balio duen gailu bat da.
 - b) Audio-seinalearen maiztasun batzuk areagotzeko balio duen gailu bat da.
 - c) Audio-seinalearen maiztasun batzuk areagotzeko edo ahultzeko balio duen gailu bat da.
 - d) Audio-seinale estereoa orekatzeko balio duen gailu bat da.
230. **Elkarrizketatu bat grabatzen ari bagara, non jarriko dugu argi nagusia?**
- a) 20°-ko angeluan alboetan, eta 40° inguru begi-lerroaren gainetik.
 - b) 90°-ko angeluan alboetan, eta 40° inguru begi-lerroaren gainetik.
 - c) 90°-ko angeluan alboetan, eta 90° inguru begi-lerroaren gainetik.
 - d) 45°-ko angeluan alboetan, eta 90° inguru begi-lerroaren gainetik.
231. **Nola saihestuko zenuke dokumentu baten atzealdea agertzea eskaneatzean?**
- a) Kontrastea handituz.
 - b) Kontrastea gutxituz.
 - c) Objektu ilun bat jarritz dokumentuaren atzean.
 - d) Objektu argi bat jarritz dokumentuaren atzean.
232. **Enkoadraketa hauetako zeinek ebakitzen du irudia belaunen gainetik?**
- a) Plano amerikarrak.
 - b) Plano ertainak.
 - c) Plano ertain laburrak.
 - d) Plano orokor laburrak.

233. **Hauek dira bideo-kamera guztien oinarritzko osagaiak:**
- a) Camcorder-a, leiarrak eta bateria.
 - b) Leiarrak, mikrofonoak eta bateria.
 - c) Leiarrak, mikrofonoak eta tripodea.
 - d) Camcorder-a eta lenteak.
234. **Zer da desaforatzea?**
- a) Hartze bat egitean, hartzeak dekoratuaren muga gainditzea.
 - b) Ekintzan parte-hartze erabakigarria duen aktore bat koadrotik kanpo uztea.
 - c) Aurrekontua % 15etik gora gainditzea.
 - d) Eszenaren parte bat lauso uztea.
235. **Zer argi neurtzen du TTL fotometroak?**
- a) Erasotzailea.
 - b) Islatua.
 - c) Erasotzailea eta islatua.
 - d) Ez dago TTL fotometrorik.
236. **Zer izen du argi zuriaren deskonposizioaren ondorio diren kolore guztien multzoak?**
- a) Ortzadarra
 - b) Argiaren espektro ikusgaia
 - c) Pigmentu-koloreak
 - d) Zirkulu kromatikoa
237. **Telebistan, kolore hauetako zein da kolore primario bat?**
- a) Magenta
 - b) Gorria
 - c) Horia
 - d) Beltza
238. **Esaten dugu kolore bat aseago dagoela:**
- a) Zenbat eta distiratsuagoa den.
 - b) Zenbat eta osagai zuri handiagoa duen.
 - c) Zenbat eta kontraste handiagoa duen.
 - d) Zuriarekiko nahastura zero denean.
239. **Zer izen du beltzetik zurira doazen tonuen serie progresiboak?**
- a) Krominantzia-maila.
 - b) Gris-eskala.
 - c) Kolore-asetasuna.
 - d) Luminantzia-maila

240. **Zer izen du, telebistan, pantaila norabide bertikalean zeharkatzen duen testu-animazioak?**
- a) Goranzko errotulua.
 - b) Beheranzko errotulua.
 - c) Crawl
 - d) Roll
241. **Zer izen du filmaketa baten fotogramak seinale-filmaketa bihurtzen dituen ekipamendu elektronikoak?**
- a) Autocue-a
 - b) Kineskopioa
 - c) Telezinema
 - d) Proiektagailua
242. **Zertarako balio du teleprinterrak?**
- a) Errotuluak pasatzeko.
 - b) Efektu bereziak egiteko.
 - c) Irudia geldiarazteko
 - d) Telebistako irudiak inprimatzeko
243. **Zer formula erabiltzen da pantaila-argazki batek konpresiorik gabe zenbat bit dituen kalkulatzeko?**
- a) $(H \text{ bereizmena} \times V \text{ bereizmena} \times \text{definizio-biten kopurua} \times 72 \text{ DPI}) / 8 \text{ bit}$
 - b) $(H \text{ bereizmena} \times V \text{ bereizmena} \times \text{definizio-biten kopurua} \times \text{pantailaren bereizmena}) / 8 \text{ bit}$
 - c) $(H \text{ bereizmena} \times V \text{ bereizmena} \times \text{definizio-biten kopurua}) / 8 \text{ bit}$
 - d) $(H \text{ bereizmena} \times V \text{ bereizmena} \times \text{definizio-biten kopurua} \times 96 \text{ DPI}) / 8 \text{ bit}$
244. **Formatu hauetako zein dira analogikoak?**
- a) CGA, EGA, VGA, DVI-D
 - b) DVI-I, HDMI, DisplayPort
 - c) VGA, DVI-A, HDMI
 - d) CGA, EGA, VGA, DVI-D
245. **BMP formatu grafikoari dagokionez, adierazi zein den erantzun okerra:**
- a) Konprimatua edo ez-konprimatua izan daiteke.
 - b) Konprimatua denez, RLE konpresio-algoritmoa erabiltzen du
 - c) Metaketa grafiko bektorialeko formatu bat da.
 - d) GIF formatuaren konpresio-algoritmo bera erabiltzen du.

246. **Zeri dagokio itu-k proposatutako h.323 estandarrak?**
- a) Bideokonferentziari
 - b) Irrati bidezko hedapenari
 - c) Internet bidezko irudi-transferentziari
 - d) Gako-trukeari
247. **Honela definitzen da hornitzailea:**
- a) Web-orriak ematen eta diseinatzen dituen enpresa bat.
 - b) Internet bidez datuak transmititzen dituen enpresa.
 - c) Zerbitzuak ematen dituen Interneteko enpresa bat.
 - d) Interneterako osagarriak ematen dituen enpresa bat.
248. **Http://www.aulapc.es/index.php helbidean, zer da www.aulapc. partea?**
- a) Domeinua.
 - b) Helbidearen protokoloa.
 - c) Zer hasierako orrialdetara iristen den.
 - d) Orrialdea gordetzen duen karpeta.
249. **Zer izen du webgune baten orri nagusiak edo hasierakoak?**
- a) Http
 - b) Host
 - c) Homepage
 - d) Domeinuarena.
250. **Html testu-fitxategietan txertatutako kodeen multzoaren sigla da. zer esan nahi du?**
- a) Hyper Text Markup Language (hipertestua markatzeko lengoaia)
 - b) Hyperlink Text Mail Login (testu hiperlotuen postaren sarrera)
 - c) Hacked Text Match Language (testu etenetarako konkordantzia-lengoaia)
 - d) High Text More Logic (testurako goi-mailako logika gehiago)
251. **Zer da xhtml?**
- a) Pornhub-ek erabiltzen duen HTML sistema
 - b) HTMLren berrikuspen bat da, XML estandarretik abiatua
 - c) HTMLri elkartutako marka-lengoaia
 - d) HTML formatuaren bihurtzaile bat
252. **Zer da html etiketa bat?**
- a) Lengoaia bera
 - b) Jantzien deskriptorea
 - c) Etiketak markak dira, nabigatzaileari adierazten diotenak zer motatakoak diren pantailan aurkeztu behar dituen elementuak.
 - d) XHTML eta HTML bereizten dituzten egiturak

253. **Zenbat zerrenda mota definitzen dira html-n?**
- a) Horizontalak eta bertikalak
 - b) Ordenatuak, ez-ordenatuak, definiziokoak eta habiaratuak.
 - c) Goiburudunak eta goibururik gabekoak
 - d) Menurik gabekoak eta menudunak
254. **Zein dira neurri-unitateak html-n?**
- a) Nazioarteko sistemarenak
 - b) Erabiltzaileak bere nabigatzailean definitzen dituenak
 - c) Pixela, ehunekoa eta erabiltzailearen nabigatzailearen lehenespenezko tamaina
 - d) Hazbetea, besoa eta oina
255. **Zein terminok definitzen du hobekien web-diseinu bat aukera ematen duena desgaitasunen bat duten pertsonen weba hautematea eta ulertzea, nabigatzea eta webarekin interakzioa izatea?**
- a) Erabiltzeko erraztasuna.
 - b) Diseinu egokitua.
 - c) Erabilgarritasuna.
 - d) Web-erabilerraztasuna.
256. **Ahalik eta egoera gehienetan funtzionatu duten eta ahalik eta pertsona gehienek erabili ahal izango dituzten produktuak diseinatzeko prozesua zer terminok definitzen du hobekien?**
- a) Erabilerraztasuna.
 - b) Erabilgarritasuna.
 - c) Diseinu unibertsala.
 - d) Produktibitatea
257. **Zer atributu erabili behar da ikusizko elementu bakoitzaren funtzioa deskribatzeko web-erabilerraztasunean?**
- a) Alt
 - b) Image
 - c) Attrib
 - d) vision
258. **Hipertestu-esteketan, zer gomendatzen dute W3C erabilerraztasun-arauek?**
- a) «Egin klik hemen» literalak erabiltzea.
 - b) Testuingurutik kanpo zentzua izango duen testu bat erabiltzea.
 - c) Esteka errepikatzea esteka horren testua dokumentuaren barnean agertzen den bakoitzean.
 - d) Ez ematea erabiltzaileari ikuspegiaren gaineko kontrola.

259. **Web-erabilerraztasunari dagokionez, zer gomendatzen da orri erabilerrazak antolatzekoan?**
- a) Ahal denean, CSS erabiltzea maketaziorako.
 - b) Estilo-orriak erabiltzea beti.
 - c) CSS saihestea ahal den guztietan.
 - d) Kontuan izatea CSS erabiltzea nahasgarria gerta daitekeela.
260. **Web-erabilerraztasunaren arauetarako dagokienez, zer bete behar du administrazio publikoaren Interneteko orrietan eskuragarri dagoen informazioak?**
- a) 1 lehentasuna soilik betetzea.
 - b) Gutxienez 1 eta 2 lehentasunak betetzea
 - c) Gutxienez 1, 2 eta 3 lehentasunak betetzea
 - d) Ez dago nahitaezko egokitze-mailarik.
261. **Web-erabilerraztasunaren arauetarako dagokienez, zer behar da ebazteko ea webgune batek betetzen dituen ala ez web-erabilerraztasunaren jarraibideak?**
- a) Ebaluazio-tresnak bakarrik erabili behar dira.
 - b) Nahikoa litzateke ebaluazio-test bat egitea.
 - c) Nahitaezkoa da pertsona ebaluatzaile batek parte hartzea.
 - d) CSS erabilgarriak erabiliz bakarrik ebatz daiteke webgune bat erabilerraza den ala ez.
262. **Adibide hauetako zein da erabilerraztasun-hesi bat web-orrietan?**
- a) Testu alternatiboa duten irudiak.
 - b) Informazio garrantzitsua pop-up leiho batean jartzea.
 - c) "Diseinu likidoa" duten orrialdeak sortzea.
 - d) Orrietan "ogi-mamiak" ("Ariadnaren hariak") agertzea.
263. **Nolako web-orriak egiteko gomendio-gida da WCAG?**
- a) Interaktiboagoak.
 - b) Seguruagoak.
 - c) Arinagoak.
 - d) Erabilerrazagoak.
264. **Zer izen dute WAI-W3Cko egile-tresnentzako erabilerraztasun-jarraibideak:**
- a) UAAG.
 - b) ATAG.
 - c) WCAG.
 - d) WGML.

265. **CSSn, elementu berarentzako !important arauen artean gatazka dagoenean, zeinek ezartzen du prebalentzia-ordena?**
- a) Erabiltzailearen estilo-orriak.
 - b) Nabigatzailearen estilo-orriak.
 - c) Egilearen estilo-orriak.
 - d) Erabiltzen ari den html-bertsioak.
266. **CSSn, zer hautatzaile motak erabiltzen du # sinboloa bere deklarazioan?**
- a) Klasea
 - b) html etiketa
 - c) Konposatua
 - d) Id
267. **CSSn, hau da modu sinple bat fitxa-sistema bat egiteko eta, hala, orri batean informazio zabala erakutsi ahal izateko:**
- a) Padding
 - b) Hover
 - c) Sliding Doors
 - d) Tabber
268. **CSSn badago propietate bat elementu baten ikuseremua hautatzeko aukera ematen duena; adibidez, irudi-editore batekin zerbait ebakitzen dugunean erabiltzen dena. Zein da?**
- a) Clip
 - b) Visibility
 - c) Position
 - d) Display
269. **Zertarako da baliagarria kamera baten makroa?**
- a) Plano orokorrak grabatzeko.
 - b) Distantzia handitik xehetasunak aratz grabatzeko.
 - c) Distantzia txikitik xehetasunak aratz grabatzeko.
 - d) Kamerek ez dute makrorik.
270. **Zer kolore-tenperatura hautatuko zenuke eguzki-argia zuzenean jasotzen duen leku batean?**
- a) 1.800 K.
 - b) 3.500 K.
 - c) 5.000 K.
 - d) 7.500 K.

271. **Zer egiten du interpolazio bikubikoak Adobe Photoshop irudiak editatzeko aplikazioan?**
- a) Pixel berria kalkulatzeko du aldameneko pixelen eragiketa bikubiko baten bidez.
 - b) Pixek berria kalkulatzeko du hurbilen dagoen pixelaren balioan oinarriturik.
 - c) Pixel berria kalkulatzeko du bere inguruko lau pixel hurbilen batezbestekoa eginez.
 - d) 16 pixel hurbilen balioak erabiltzen ditu kalkulu bat egiteko.
272. **Non jarri behar dira megafoniako bozgorailuak ikasgela batean?**
- a) Berdin dio non jartzen diren.
 - b) Mikroaren aurrean.
 - c) Irakaslearen mahaiaren atzean.
 - d) Ikasgelaren hondoan.
273. **Kolore-bihurketako saio hauetako zein erabiliko zenuke logo bat inprimatzeko?**
- a) Pertzeptuala.
 - b) Kolorimetriko absolutua.
 - c) Kolorimetriko erlatiboa.
 - d) Asetasuna.
274. **Soinuan, honela definitzen da periodoa:**
- a) Segundo batean gertatzen den uhin edo oszilazio kopurua.
 - b) Uhinak ingurune jakin batean bidaiatzen duten abiadura.
 - c) Uhin edo oszilazio batek amaitzeko behar duen denbora.
 - d) Uhinardi batek amaitzeko behar duen denbora.
275. **Zer da argiztapeneko oinarrizko triangelua?**
- a) Argiztapen-maleta batek izan ohi dituen hiru argiak.
 - b) Hiru argiak triangelu aldeakide bat eratuz kokatzea.
 - c) Hiru argiak: nagusia, betegarria eta kontraargia.
 - d) Hiru argi subjektutik distantzia berera jartzea, itzalak saihesteko.
276. **Zer izen du bideo-kameraren mugimendu bertikalak?**
- a) Crane.
 - b) Paneatzea.
 - c) Tilt.
 - d) Travel.
277. **Arau hauetako zein erabiliko zenuke ardatz-saltoa saihesteko bideo-hartze batean?**
- a) 15°-en erregela.
 - b) 30°-en erregela.
 - c) 90°-en erregela.
 - d) 180°-en erregela.

278. **Zer magnitude neurtzen da miredetan?**
- a) Kolore-tenperatura.
 - b) Argi-fluxua.
 - c) Ikuspen-angelua.
 - d) Mireda ez da neurri-unitate bat.
279. **Zer izen du panoramika bertikal baten eta horizontal baten konbinazioak?**
- a) Panoramika zeiharra.
 - b) Panoramika zirkularra.
 - c) Ford-en panoramika.
 - d) Kulunka-mugimendua.
280. **Zer tamaina izango du irudi baten TIFF fitxategi batek, RGB kolore moduan eta 8 bit/kanalekin, baldin eta 8 megapixeiko kamera batekin hartua izan bada bereizmenik handienean?**
- a) 8 MB (megabyte).
 - b) 8 Mb (megabit).
 - c) 24 MB (megabyte).
 - d) 24 Mb (megabit).
281. **Nola transmiti dezakete haririk gabeko mikrofonoek:**
- a) UHFz bakarrik.
 - b) FMz bakarrik.
 - c) UHFz edo FMz bakarrik.
 - d) UHFz, VHFz edo FMz.
282. **Zein da kolore lehenetsia chroma keya egiteko?**
- a) Urdina.
 - b) Gorria.
 - c) Horia.
 - d) Beltza.
283. **Zer mikrofonotarako erabili behar dugu nahasketa-mahaiko PHANTOM elikadura?**
- a) Haril mugikorreko mikrofonorako.
 - b) Mikrofono zintadunerako.
 - c) Mikrofono kondentsadoredunerako.
 - d) Nahasketa-mahai batera konektatzen diren mikrofono guztiek PHANTOM elikadura erabiltzen dute.

284. **Ligos Indeo 5.11, PICVideo, HuffYUV...zer dira?**
- a) Editatze-programak.
 - b) Azpitoluuetarako softwarea.
 - c) Konpresio-codecak.
 - d) Bideo-harrapatzaileak.
285. **Zer neurtzen du bektorskopioak?**
- a) Kolorearen informazioa.
 - b) Argiaren informazioa.
 - c) Zarataren informazioa.
 - d) Hautsaren informazioa.
286. **Soinurik baxuenak maiztasun-tarte honetan daude:**
- a) 2.000-20.000 KHz.
 - b) 2.000-20.000 Hz.
 - c) 10.000-20.000 Hz.
 - d) 10.000-20.000 KHz.
287. **Zer gailu erabiliko dugu irudi-kalitaterik onena lortzeko argazki original bat digitalizatzean?**
- a) Danbor-eskaner bat.
 - b) Diapositiba-eskaner bat.
 - c) Eskaner lau bat.
 - d) Reflex kamera digital bat.
288. **Adobe Premiere-n, pista matearen gakoak (track matte key)...**
- a) Irudi estatiko bat erabiltzen du klip bat erakusteko beste baten bidez.
 - b) Geruza berean erakusten ditu maskara eta klipa.
 - c) Klip mugimendudun bat erabiltzen du maskara gisa.
 - d) Kolorezko irudi bat erabiltzen du maskara gisa.
289. **Zer da hurbiltze-leiar bat?**
- a) Gutxieneko fokuratze-distantzia laburtzeko aukera ematen duen leiar bat.
 - b) Foku-distantzia laburreko leiar bat.
 - c) Foku-distantzia luzeko leiar bat.
 - d) Makroa duen zoom bat.
290. **Zer da f zenbakia?**
- a) Foku-distantziaren eta diafragmaren diametroaren arteko zatidura.
 - b) Diafragmaren diametroaren eta foku-distantziaren arteko zatidura.
 - c) Foku-distantziaren eta diafragmaren diametroaren arteko biderkadura.
 - d) Diafragmaren diametroa.

291. **Zer adierazten du ICE terminoak eskaner baten espezifikazioetan?**
- a) Originalen elikatzaile automatiko bat da.
 - b) Originaletako orbanak eta urratuak detektatzeko eta zuzentzeko sistema bat da.
 - c) Eskanerraren kolore-sakonera da.
 - d) Eskanerrak lor dezakeen dentsitate-tartea da.
292. **Nola konpentsatuko zenuke argi kontra dagoen plano ertaineko erretratu baten esposizioa baldin eta kameraren neurketa matriziala erabiltzen badugu argia neurtzeko sistema gisa?**
- a) Kamerako fotometroak adierazitako balioa baino bat eta erdi gehiago irekiz diafragma
 - b) Kamerako fotometroak adierazitako balioa baino bat gehiago itxiz diafragma
 - c) Kamerako fotometroak adierazitako balioa baino bi gehiago itxiz diafragma
 - d) Kamerako fotometroak adierazitako balioa erabiliko nuke.
293. **Argazki panoramiko bat egiteko objektibo bat hautatu beharko bazenu, zer objektibo hautatuko zenuke?**
- a) 50 mm-ko foku-distantziako bat
 - b) 35 mm-ko foku-distantziako bat
 - c) 300 mm-ko foku-distantziako bat
 - d) 80 mm-ko foku-distantziako bat
294. **Zein da bi irudi digital konparatzeko neurri bakarra?**
- a) Haien kolore-sakonera
 - b) Bakoitzaren pixel kopurua
 - c) Haien kolore modua
 - d) Inprimatzeko erabilitako bitartekoa: inprimagailua, argazki-printerra, arte grafi-koak.
295. **Argazki digital batean, zer da azken irudian agertzen den pixel kopurua?**
- a) Pixel eraginkorrak
 - b) Pixel totalak.
 - c) Pixel totalen eta pixel eraginkorren arteko kendura.
 - d) Pixel totalen eta pixel eraginkorren batura.
296. **Zenbat okupatzen du 2000 x 1000 pixeleko irudi batek gris-eskalan eta 8 biteko kolore-sakonerekin?**
- a) 200 kb
 - b) 20 kb
 - c) 160 kb
 - d) 2 Mb

297. **Gaur egun argazkiak zuzenean digitalean egiteko aukera ematen duten atzipen fotosentikorreko sentsoreak hauek dira:**
- a) DDR eta CMOS
 - b) CCD eta CMOS
 - c) SDRAM eta DDR
 - d) TIFF eta JPEG
298. **Hala laser-inprimagailuek nola sublimaziokoek hau erabiltzen dute:**
- a) Lau RGB tinta
 - b) Sei sRGB tinta
 - c) Sei CMYK tinta
 - d) Lau CMYK tinta
299. **Zer da HSB modua?**
- a) Tonuan, asetasunean eta distiran oinarritutako irudi modua
 - b) Argiaren errefrakzio-ardatzean oinarritutako irudi modua
 - c) Luminantzian eta kontrastean oinarritutako irudi modua
 - d) Argi-kanalean oinarritutako irudi modua da
300. **Nola egin dezakegu irudiaren edozein egoeraren aldi baterako kopia bat Photoshopen lanean ari garenean?**
- a) Maskara azkar bat erabiliz eta trazatu gisa gordez
 - b) Pintzel historikoa erabiliz.
 - c) Argazki bat sortuz Historia panelean
 - d) Irudia hautatuz eta alfa kanal gisa gordez
301. **Zer argi mota izaten da eskuarki eszena batean?**
- a) Argi asea
 - b) Giro-argia
 - c) Argi artifiziala
 - d) Argi erasotzailea
302. **Irekiz eta itxiz argia pelikulara denbora luzeagoan edo laburragoan iristeko balio duen kameraren mekanismoa:**
- a) Obturadorea
 - b) Objektiboa
 - c) Esposimetroa
 - d) Flasha

303. **Zein da foku luzeko eta angelu estuko (20° baino gutxiagoko) objektibo baten abantaila nagusia?**
- a) Eremu-sakonera txikia ematen du
 - b) Sakontasuna konprimatu egiten da
 - c) Aukera ematen du modelaketa eta espazioa puzteko
 - d) Erabilgarria da erretratuak egiteko
304. **Zertarako erabiltzen da plano laburra?**
- a) Ekintza non gertatzen ari den erakusteko
 - b) Ikusleek aukera izan dezaten mugimendu zabalei jarraitzeko
 - c) Nabarmentzeko
 - d) Aldarte bat sortzeko
305. **Errealizazioan, zertarako erabiltzen da gutxi gorabehera 50°-ko objektiboko angelu bat?**
- a) Talde batean dauden banakoak bakartzeko
 - b) Eremu-sakonera pixka bat murrizteko
 - c) Plano zabalak egiteko kameretatik hurbil
 - d) Eremu-sakonera nabarmen konprimatzeko
306. **Zer neurketa-metodo erabili ohi da argiztapen zinematografikoan?**
- a) Argi islatua lantzen da
 - b) Argi erasotzailea lantzen da
 - c) Argi gorria lantzen da
 - d) Luminantzia lantzen da
307. **Zer abantaila du argi erasotzailea neurtzearen metodoa?**
- a) Zenbait norabidetatik datozen argien arteko oreka erraz kontrolatzen da
 - b) Argiztapenaren uniformetasuna erraztu dezake
 - c) Aukera ematen du distira eta kontrastea zehaztasun handiz baloratzeko
 - d) Argi-mailen batezbestekoen kontrol azkarra eta zehatza ematen du
308. **Zein dira argiztapenaren oinarri praktikoak?**
- a) Argiaren intentsitatea, argiaren kolore-kalitatea, argiaren dispartzioa eta argiaren norabidea
 - b) Argiaren intentsitatea, argiaren kolore kantitatea, argiaren dispartzioa eta argiaren norabidea
 - c) Argiaren intentsitatea, argiaren kolore-kalitatea, argiaren islapena eta argiaren norabidea
 - d) Argiaren intentsitatea, argiaren kolore-kalitatea, argiaren islapena eta argiaren norabidea

309. **Txertatze bidez editatzen denean...**
- a) Audioa eta bideoa ezin dira batera grabatu.
 - b) Bideo- eta audio-seinalea bakarrik grabatzen da.
 - c) Bideo-seinalea bakarrik sartzen da.
 - d) Kontrol-pistan sinkronismoa bakarrik grabatzen da.
310. **Denbora-kode bidezko editatze batean, puntu bat dugu 00:15:27:05 gisa markatua. Zeri dagokio 05 hori?**
- a) Eremuak
 - b) Koadroak
 - c) Segundo-hamarrenak.
 - d) Segundo-ehunenak
311. **Zein da kolore-azpigarraiatazalearen maiztasuna PALen?**
- a) 3,58 MHz.
 - b) 4,43 MHz.
 - c) 4,43 KHz.
 - d) 3,58 KHz.
312. **Zer da bi zutabeko gidoi dramatiko bat?**
- a) Toki berean hasten eta bukatzen dena.
 - b) Bi zati berdinetan banatzen dena: bata soinuarena da, eta bestea eszenaratzea.
 - c) Zuriune batez bereizitako zutabeetan bakarrik idazten dena.
 - d) Testuaren eta testua interpretatzen duten pertsonaien informazioa duena.
313. **Oro har, zenbat iraun behar du plano orokor batek?**
- a) Lehen plano batek baino gehiago.
 - b) Lehen plano batek baino gutxiago.
 - c) Lehen plano batek adina.
 - d) Zuzendariaren arabera
314. **Aparatu hauetako batek ez du balio irudi bat geldiarazteko:**
- a) Sinkronismo-sorgailua.
 - b) DMEa
 - c) Magnetoskopiaoren memoria.
 - d) Abekas makina
315. **Zer da «burst-salba» bat?**
- a) Osagai-seinale baten parte bat.
 - b) Kolorearen erreferentzia.
 - c) Buru magnetiko baten polarizazioa
 - d) Osagai-seinalea.

316. **Zer espresio molde erabili zuen nagusiki espresionismoak zineman?**
- a) Muntaketa
 - b) Kolorea.
 - c) Argiztapena
 - d) Banaketa
317. **Zer izen du bideo-zinta guztien hasieran grabatu ohi den bideo-seinaleak?**
- a) Kontrol-barrak.
 - b) Control track-a.
 - c) Zurien doitzea.
 - d) Erreferentzia-pista.
318. **Zer kolorek osatzen dute zuria telebista-seinale batean?**
- a) Gorria, berdea, urdina.
 - b) Magenta, ziana, horia.
 - c) Gorria, horia, berdea.
 - a) Gorria, horia, berdea, urdina.
319. **Zer kolore ditu telebistetan seinaleak kontrolatzeko eta neurtzeko erabiltzen den seinale-barrak?**
- a) Zuria, horia, ziana, berdea, magenta, gorria, urdina eta beltza.
 - b) Zuria, horia, ziana, berdea, magenta, gorria eta urdina.
 - c) Horia, ziana, berdea, magenta, gorria eta urdina.
 - d) Zuria, horia, ziana, berdea, purpura, urdina eta beltza.
320. **PALen, segundo batean...**
- a) 25 frame daude.
 - b) 25 eremu daude.
 - c) 24 frame daude.
 - d) 50 frame daude.
321. **Planoa eten gabe enkoadraketa batetik bestera pasatzea kameraren ardatza biratuz. Zer izen du?**
- a) Travelling-a.
 - b) Erlazio-panoramika.
 - c) Planoa / kontraplanoa.
 - d) Behetik gorakoa.
322. **Zein da argi-intentsitatearen unitatea?**
- a) Wattedko lumena (lumen zati watt).
 - b) Watta.
 - c) Lumena.
 - d) Kandela.

323. **Zein da 4:1:1 eta 4:2:0 laginketa-sistemen arteko alde nagusia?**
- a) 4:1:1 formatuak bi audio-kanal analogiko ditu, eta 4:2:0 formatuak bi kanal estereo ditu digitalean.
 - b) 4:1:1 eta 4:2:0 formatuek modu berean lagintzen dute kolorea, baina lehenengoak irudi-bereizmen handiagoa du.
 - c) 4:2:0 formatuan, erreprodukzioan, jatorrizko koloreekiko fideltasuna handiagoa da 4:1:1 formatuan baino.
 - d) 4:1:1 formatuan, erreprodukzioan, jatorrizko koloreekiko fideltasuna handiagoa da 4:2:0 formatuan baino.
324. **Gaur egun, zer prozesu erabiltzen dute ordenagailuek eta multimedia-ekipamenduek seinalea lantzeko?**
- a) Bideo konposatuko seinale-sistema.
 - b) RGBko seinale-sistema.
 - c) Y/C seinale-sistema
 - d) Pixeletako seinale-sistema.
325. **Giza begiaren zer ezaugarri berezitan oinarritzen dira telebistako sistema kolorimetriko guztiak?**
- a) Hipotesi honetan: giza begia bi aldiz traketsagoa da distira-aldaketekiko kolore-aldaketekiko baino, eta, horrenbestez, bereizmen bi aldiz handiagoa behar du distirarekiko kolorearekiko baino.
 - b) Hipotesi honetan: giza begia bi aldiz traketsagoa da kolore-aldaketekiko distira-aldaketekiko baino, eta, horrenbestez, bereizmen bi aldiz handiagoa behar du kolorearekiko distirarekiko baino.
 - c) Hipotesi honetan: giza begia bi aldiz traketsagoa da kolore-aldaketekiko distira-aldaketekiko baino, eta, horrenbestez, bereizmen bi aldiz handiagoa behar du distirarekiko kolorearekiko baino.
 - d) Hipotesi honetan: giza begia bi aldiz traketsagoa da kolore-aldaketekiko, eta, horrenbestez, kolorearekiko bereizmen bi aldiz handiagoa behar du.
326. **Zer izen du hondo edo dekoratu berarekin gertatzen den ekintza jarraituak?**
- a) Eskaleta.
 - b) Argumentua.
 - c) Sekuentzia.
 - d) Planoa.
327. **Zein da hargailuaren eta monitorearen arteko aldea?**
- a) Hargailuak irrati-maiztasun bidez jasotzen du seinalea; monitoreak, berriz, linea-kabletik.
 - b) Monitoreak irrati-maiztasun bidez jasotzen du seinalea; hargailuak, berriz, linea-kabletik.
 - c) Hargailua PALen bakarrik erabiltzen da; monitorea, berriz, SECAMen.
 - d) Hargailuak zuri-beltzean jasotzen du seinalea; monitoreak, berriz, koloretan

328. **Zer izen dute errendimendu handiko eta potentzia handiko metal-halogenozko lanparek?**
- a) PAR lanparak.
 - b) HMI lanparak.
 - c) Lanpara halogenoak.
 - d) Kuartzozko lanparak.
329. **Nola doitu dezakegu eszena bateko argiztapenaren intentsitatea argiegia agertzen denean?**
- a) Eszena argizatzen duten fokuen potentzia handituz.
 - b) Diafragma irekiz.
 - c) Eszena argizatzen duten fokuen potentzia gutxituz edo diafragma itxiz.
 - d) Eszena argizatzen duten fokuen potentzia gutxituz edo diafragma irekiz.
330. **Soinuaren abiadura 340 m/sg baldin bada, zein izango da 1 kHz-eko maiztasuneko soinu baten uhin-luzera?**
- a) 0,34 km.
 - b) 3,4 m.
 - c) 3,4 km.
 - d) 0,34 m.
331. **Zer izen du hondoko zarata murrizteko sistemak?**
- a) Manilton
 - b) TBC
 - c) Dolby
 - d) Estereoa
332. **Objektu hori bat argi morez argizatzen badugu...**
- a) Urdin ikusiko dugu objektua
 - b) Berde ikusiko dugu objektua
 - c) Beltz ikusiko dugu objektua
 - d) Gorri ikusiko dugu objektua
333. **Zer adierazten du bideo-kamera batean tallya etengabe piztuta agertzeak?**
- a) Itzalita dagoela
 - b) Stand by dagoela
 - c) VTRn grabatzen ari dela
 - d) Huts egiten ari dela
334. **Zer banda-zabalera erabiltzen du MPG2 batek?**
- a) 3-10 mega bitartekoa
 - b) 25 mega
 - c) 12-24 mega bitartekoa
 - d) 4,5 giga

335. **Formatu hauetako zein da egokiena bideo bat Internet bidez ikusteko?**
- a) MPG4
 - b) Mpg2
 - c) JPG
 - d) AVI
336. **Sistema hauetako zein erabiltzen da irudi-fitxategi bat konprimatzeko JPEG formatuan?**
- a) Interpolazioa
 - b) Lerro-murritzeta
 - c) Kolore kopurua murriztea
 - d) Pixel kopurua murriztea
337. **Zein da GIF formatuaren gehieneko sakonera?**
- a) 8 bit
 - b) 16 bit
 - c) 32 bit
 - d) 24 bit
338. **CMYK kolore moduan, zenbat bit ditu kolore-kanal bakoitzak?**
- a) 32 bit
 - b) 16 bit
 - c) 12 bit
 - d) 8 bit
339. **Zer adierazten du histogramak Photoshopen?**
- a) Irudi baten pixel kopurua
 - b) Irudiaren tonu-gama
 - c) Gris-maila
 - d) Kolorearen eta zuriaren arteko proportzioa
340. **Zer da TWAIN interfazea?**
- a) Kamera digitalak eta magnetoskopioak urrutitik maneiatzen ditu
 - b) Bideo digitalerako interfaze bat da, soinua eta bideoa eskuratzen dituen
 - c) Plataforma anitzeko interfaze bat da, irudiak eskanerretik eta kamera digitaletatik eskuratzeko
 - d) SCSI interfazearen funtzio berak ditu
341. **Benetako kolorearen bereizmenerako, hau erabili behar da:**
- a) 1 bit
 - b) 1 byte
 - c) 2 byte
 - d) 2 byte baino gehiago.

342. **MP3 konpresioa lortzeko, hau erabiltzen da:**

- a) Algoritmo zehatzak, hala nola ZIP formatua
- b) Maiztasun batzuk ezabatzea
- c) Laginketa-maiztasun baxuak murriztea
- d) Maiztasun berdinak konprimatzea

343. **Zer formatu izan behar du DVD batean grabatutako informazioak?**

- a) Analogikoa
- b) Digitala
- c) Analogikoa eta digitala
- d) DV

344. **F zenbaki hauen seriea kontuan harturik: 5,6 - 8 - 11, hau esan dezakegu:**

- a) F zenbaki bakoitzak (diafragma) aurrekoak baino argi kantitate bikoitza uzten duela pasatzen pelikulara.
- b) F zenbaki bakoitzak (diafragma) aurrekoak uzten duen argi kantitatearen erdia uzten duela pasatzen pelikulara.
- c) F zenbaki bakoitzak (diafragma) aurrekoak uzten duen argi kantitatearen herena uzten duela pasatzen pelikulara.
- d) Ez dagoela erlaziorik haien artean.

345. **Zer neurtu ohi dute fotometroa integratua duten formatu unibertsaleko reflex kamerek?**

- a) Argi erasotzailea
- b) Argi islatua
- c) Ez bata eta ez bestea
- d) Argi erasotzaile iragazia.

346. **Hau da RAW formatuaren bereizgarria:**

- a) Sentsorearen pixel eraginkorrak erabiltzen ditu.
- b) Haren fitxategiek TIFF formatukoek baino tamaina handiagoa dute.
- c) Irudiak editatzeko edozein programak alda dezake.
- d) CCDaren fitxategi gordina da, prozesatu gabea.

347. **Zer da «laguntza digital» bat?**

- a) Egokigailu bat da, argazki-kamera digital baten bereizmena handitzeko balio duena
- b) Egokigailu bat da, argazki-kamera digital baten metatzeko ahalmena handitzeko balio duena
- c) Egokigailu bat da, argazki-kamera analogiko baten pelikula argazki digitalak egiten uzten duen sentsore batez ordeztzeko balio duena.
- d) Egokigailu bat da, 35 mm-ko argazki-kamera digital bat 6x6 edo 6x7ko formatu batera aldatzeko balio duena

348. **Argazki zahar batek urratuak eta zati hautsiak baldin baditu, nola zaharberrituko zenuke?**
- a) Tanpoi zuzentzailea eta Hondo-ezabatzailea tresnekin
 - b) Likidotzea eta Pintzel zuzentzailea tresnekin
 - c) Klonatzeko tanpoia eta Pintzel zuzentzailea tresnekin
 - d) Klonatzeko tanpoia eta Gainesposizioa Eman tresnekin
349. **Zer argi mota da itzal oso leunak sortzen dituen eta motiboa modu uniformearen argizatzen duena?**
- a) Polarizatua
 - b) Argi natural lausoa
 - c) Argi natural gogorra
 - d) Argi natural ertaina
350. **Zein da foku laburreko objektibo angeluhandi (30° baino gehiago) baten abantaila nagusia?**
- a) Irispidean ez dauden subjektuen hartze "hurbilak" egin ahal izatea
 - b) Eredu-sakonera nabarmena ematen du
 - c) Sakonera puztuta ageri da
 - d) Hurbildu egiten ditu urruneko objektuak
351. **Errealizazioan, zertarako erabiltzen da gutxi gorabehera 35°-ko objektiboko angelu bat?**
- a) Talde batean dauden banakoak bakartzeko
 - b) Eredu-sakonera pixka bat murrizteko
 - c) Dollyaren mugimenduak eta abiadura nabarmentzeko
 - d) Dollyaren mugimendua eta haren abiadura puzteko
352. **Zein dira neurketa-metodo ohikoenak?**
- a) Argi erasotzailearen, argi islatuaren eta luminantziaren metodoa
 - b) Argi erasotzailearen, argi baztertuaren eta luminantziaren metodoa
 - c) Argi berrerasotzailearen, argi islatuaren eta luminantziaren metodoa
 - d) Argi berrerasotzailearen, argi baztertuaren eta luminantziaren metodoa
353. **Zer da kontraargi gurutzatua edo hiru laurdenekoa?**
- a) Objektiboaren ardatzetik 30° bat gradura dagoen kontraargia
 - b) Objektiboaren ardatzetik 25° bat gradura dagoen kontraargia
 - c) Objektiboaren ardatzetik 15° bat gradura dagoen kontraargia
 - d) Objektiboaren ardatzetik 35° bat gradura dagoen kontraargia

354. **Zer argi mota da hondoa bakarrik argiztatzen duena?**
- a) Dekoratu-argia
 - b) Albo-argia
 - c) Kontrastea kontrolatzeko argia
 - d) Ertzeko edo arraseko argia
355. **Objektu solido gorpuzdun gehienek argi-iturrien oinarritzko 3 norabide behar dituzte. Zer izen dute iturri horiek?**
- a) Argi nagusia, argi sekundarioa eta kontraargia
 - b) Argi nagusia, argi betegarria eta kontraargia
 - c) Zenit-argia, argi sekundarioa eta kontraargia
 - d) Argi nagusia, argi sekundarioa eta kontraargia
356. **Zineman, zer izen du argien eta kolorearen orekak?**
- a) Berdintzailea.
 - b) Etalonajea.
 - c) Kolorimetria.
 - d) Triangeluarra.
357. **Zenbat lerro ditu irudi batek PAL telebistan?**
- a) 525
 - b) 625
 - c) 25
 - d) 50
358. **Zein dira telebista-kameraren oinarritzko bi parteak?**
- a) Zirkuitu elektronikoak eta konexioak
 - b) CCD sentsorea eta energia-unitatea
 - c) Atal optikoa eta atal elektronikoa
 - d) Objektiboa eta zuri-beltzezko bisorea.
359. **Zer izango da argi-espektroaren erradiazio ikusgaiak baino uhin-luzera txikiagoa duen erradiazio bat?**
- a) Erradiazio infragorri bat.
 - b) Uhin hertziar bat.
 - c) Bero-erradiazio bat.
 - d) Erradiazio ultramore bat.
360. **Zer datu-fluxu bitarrarekin lan egiten dute DVCAM formatuko ekipamenduek?**
- a) 50 Mb/segundo
 - b) 100 Mb/segundo.
 - c) 25 Mb/segundo.
 - d) 18 Mb/segundo.

361. **Bideo-seinale analogikoa honela osatzen da:**

- a) Parte bakar bat, 0 eta 1 volt artean aldatzen dena.
- b) Parte bakar bat, 0 eta 0,7 volt artean aldatzen dena.
- c) Parte aktibo bat, beltzaren —0 voltean— eta zuriaren —1 voltean— artean aldatzen dena, eta sinkronismo-seinale bat, beltzetik (0 volt) superbeltzera (–0,3 volt) aldatzen dena.
- d) Parte aktibo bat, beltzaren —0 voltean— eta zuriaren —0,7 voltean— artean aldatzen dena, eta sinkronismo-seinale bat, beltzetik (0 volt) superbeltzera (–0,3 volt) aldatzen dena.

362. **Zer da bideo-seinalearen kuantifikazioa analogiko/digital bihurtzeko prozesuan?**

- a) Irudi gogor batek 1/25 segundo irauten duenez, aldi horretan 625 lerro korritzen ditu. Beraz, lerro bakoitzak 64 mikrosegundo behar ditu seinale analogikoak daukan informazio guztia irakurtzeko.
- b) Lerroko 720 pixel esploratzea da luminantziarako; kolorerako, berriz, 360 pixel bakarrik esploratzen dira.
- c) Bideo-seinalearen tarte dinamikoko gris-maila guztiak (beltzaren eta zuriaren artean) ordezkatzeko behar den bit kopurua. Giza begiak 220 maila bereizten ditu; beraz, 8 biteko hitzak beharko dira.
- d) Biribiltze- eta kodetze-tekniken aplikazioa da, seinale digitalaren banda-zabalera gutxitzeko, tamaina murriztearen eta, hala, geroago bideoa editatzea errazteko.

363. **Europako Irrati-difusioko Batasunaren (UER gaztelaniaz eta frantsesez, eta EBU ingelesez) kolore-barren seinalea grabazio eta transmisio analogiko zein digitalak egiaztatzeko erabiltzen da. Bideo-seinale bat da, eta ezaugarri hauek ditu**

- a) % 100eko anplitudea eta % 100eko asetasuna du.
- b) % 75eko anplitudea eta % 100eko asetasuna du.
- c) % 100eko anplitudea eta % 75eko asetasuna du.
- d) % 75eko anplitudea eta % 75eko asetasuna du.

364. **Zer egiten dute telebista digitalaren 4:1:1 eta 4:2:0 arauak beren datu-fluxu handiari konpresioa aplikatu baino lehen?**

- a) Datu kolorimetriko batzuk galtzen dituzte, baina hautemanezina da giza begiarentzat.
- b) Datu bitarren fluxua segundoko 166 Mb-etik segundoko 125 Mb-era murrizten dute.
- c) Kolore-seinalearen multiplexatu bat.
- d) Soinuaren konpresio digital bat, datu bitarren fluxua murrizteko.

365. **Pertsonaia bat bere ezkerreantz albora begiratzen ari bada, zer enkoadraketa emango diogu plano ertain labur batean?**

- a) Pertsonaia zentratuz.
- b) Tarte utziz enkoadraketaren eskuinean.
- c) Tarte utziz enkoadraketaren ezkerrean.
- d) Berdin dio, planoaren tamainagatik.

366. **Kuartzozko lanpara halogenoa:**

- a) Ioduro metalikozko lanpara bat da.
- b) Egun-argiko lanpara bat da.
- c) Ez da ukitu behar esku biluziekin.
- d) Barnean merkurio-lurruna duen lanpara bat da.

367. **Nola kalkulatu dugu mikrofono baten sentikortasuna?**

- a) Sortutako seinale elektrikoa beraren mintzeko presio erasotzailearekiko neurtuz
- b) Mintzeko presio erasotzailearen eta soinu-maiztasunaren arteko erlazioa neurtuz
- c) Zer gehieneko maiztasunari erantzuten dion neurtuz
- d) Zer gutxieneko maiztasunari erantzuten dion neurtuz

368. **Zein da MPEG1 baten bereizmena?**

- a) 768x576.
- b) 480x256
- c) 720x576.
- d) 352x240

369. **Zertarako sortzen dira Photoshopen Alfa kanalak?**

- a) Koloreak alderantzizatzeko
- b) Irudiaren bereizmena aldatzeko
- c) Maskarak sortu eta metatzeko
- d) Ondoz ondoko geruzak bata besteari gainean jartzeko

370. **Zein da bereizmenik egokiena 15"-ko monitore batentzat?**

- a) 1120x800
- b) 640x480
- c) 800x600
- d) 720x576

371. **Gehienez zenbat kolore erakuts daitezke pantailan 16 bitekin?**

- a) 16 kolore
- b) 256 kolore
- c) 65.536 kolore
- d) 16.777.216 kolore

372. **Fitzategi hauetako zeinekin ezin du lan egin Premiere 6.5k?**

- a) MPEG
- b) AVI
- c) MOV
- d) VOB

373. **Zer tamaina du DV formatuak?**
- a) 768x576
 - b) 680x465
 - c) 720x576
 - d) 800x600
374. **Audio- eta bideo-informazioaz gainera, zer du DV formatuan grabatutako seinaleak?**
- a) Kroma-seinalea
 - b) Denbora-kodea
 - c) Sinkronismo bertikalak
 - d) Irabaziak bideo-seinalean
375. **Zer teknika da egokia irudi-fitxategien tamaina optimizatzeko?**
- a) Irudiaren bereizmena gutxitzea
 - b) Datuak konprimatzea
 - c) Irudia ebakitzea
 - d) Ezin dira optimizatu
376. **53) Adierazi zein den kolore-espaziorik egokiena aurkezpen multimedia baterako**
- a) CMYK
 - b) RGB
 - c) Lab
 - d) Duotone
377. **Zer beste izen du irisak?**
- a) Leiarra
 - b) Diafragma
 - c) Obturadorea
 - d) Erretina
378. **Esan daiteke bozgorailuaren funtzioa beste gailu batek betetzen duenaren alderantzizkoa dela. Zein da beste gailu hori?**
- a) Mikrofonoa
 - b) Anplifikadorea
 - c) Grabazio-burua
 - d) Monitorea
379. **Hauek dira kolore baten hiru parametroak:**
- a) Ikusgaitasuna, argitasuna, kalitatea
 - b) Distira, tonua, asetasuna
 - c) Luminantzia, krominantzia, gardentasuna
 - d) Distira, kontrastea, araztasuna

380. **Zertarako da baliagarria kamera baten «makroa»?**
- a) Plano orokorrak grabatzeko
 - b) Distantzia txikitik xehetasunak aratz grabatzeko
 - c) Distantzia handitik xehetasunak aratz grabatzeko
 - d) Giza ikusmenak duen baino ikuspen-angelu handiagoarekin grabatzeko
381. **Prozedura aditiboan, hauek dira kolore primarioak:**
- a) Gorria, horia, berdea eta urdina
 - b) Gorria, horia eta berdea
 - c) Gorria, berdea eta urdina
 - d) Gorria, berdea eta magenta
382. **Zer izen du bideo-seinalea fasean eta denboran sinkronizatzeak?**
- a) de-codec
 - b) gen-lock
 - c) Monitorizazioa
 - d) Kuantifikazioa
383. **Zer gailuk ematen du krominantziaren irudikapen polarra?**
- a) Osziloskopioa
 - b) Uhin-formako monitorea
 - c) Bumetroa
 - d) Bektorskopioa
384. **Zer gertatzen zaio eremu-sakonerari kamera batean argiztapena murriztu eta diafragma irekitzen denean?**
- a) Daukagun zurien balantzearen arabera jokatu du
 - b) Handitu egiten da
 - c) Ez da aldatzen
 - d) Murriztu egiten da
385. **Zer efektu gertatzen da pantailan aurkezle batek marra estuak edo ziri-formakoak dituen jantziren bat erabiltzen duenean?**
- a) Moiré
 - b) Arrastatzea
 - c) Drops
 - d) Tracking
386. **Zer adierazten du bideo-kamera batean tallyak?**
- a) Itzalita dagoela
 - b) Stand by dagoela
 - c) Grabatzen ari dela
 - d) Huts egiten ari dela

387. **Zein da, bideoan, emultsioaren pikorraren baliokidea?**
- a) Zarata
 - b) Sentikortasuna
 - c) Irabazia
 - d) Ezpurutasuna
388. **Zeinentzat da bereziki erabilgarria prompterra?**
- a) Kamerariarentzat
 - b) Esatariarentzat
 - c) Eszena-zuzendariarentzat
 - d) Errealizadorearentzat
389. **Zer izen du telebistan pantaila norabide bertikalean zeharkatzen duen testu-anima-zioak?**
- a) Goranzko errotulua.
 - b) Beheranzko errotulua.
 - c) Crawl
 - d) Roll
390. **Zer da eskaleta?**
- a) Programa baten edukien zerrenda
 - b) Gidoi baten gertaeren zerrenda kronologikoki ordenatua.
 - c) Gidoi baten gertaeren zerrenda
 - d) Sekuentzia-denboren zerrenda
391. **Zer da PATCH PANELa?**
- a) Bideo-instalazio bateko ekipamenduak konektatzeko panela
 - b) Irudi-seinalea, baina ez audioa, kopiatzeko panela
 - c) Irudi- eta soinu-seinale ez-digitala hartzeko panela
 - d) Seinale-bihurketako panela
392. **¿Zer da «fader» bat?**
- a) Argia neurtzeko gailu bat
 - b) Audio-seinale baten maila igotzen edo jaisten duen gailu bat
 - c) Soinu-neurri bat
 - d) Audio-seinalea neurtzeko gailu bat
393. **Zer da BNC delakoa?**
- a) Konexio digital bat
 - b) Bideo konposatuko seinaletan kable bat
 - c) Bideo-konektore bat
 - d) Sinkronismo-pultsu bat

394. **Zer izen du lerro bakoitien eta bikoitien arteko bereizketa fisikoaren prozesuak?**
- a) Desgurutzelarkatzea
 - b) Eremua
 - c) Izozte
 - d) Ekorketa
395. **Zer da «kerning»a?**
- a) Testu baten lerroen arteko tarte bertikala
 - b) Testu baten karaktereen arteko tarte horizontala
 - c) Letraren solidoaren opakutasuna
 - d) Tipografiaren zabaleraren eta luzeraren arteko proportzioa
396. **Konektore hauetatik, zein ez da erabiltzen audio-konexio gisa?**
- a) JACK.
 - b) BNC.
 - c) RCA.
 - d) XLR.
397. **Bada teknika bat egunez grabatuz gau-efektu bat sortzeko. Zer izen du?**
- a) Pertsiana-argiztapena
 - b) Gau amerikarra
 - c) Notan argiztapena
 - d) Linbo argiztapena
398. **Zer doitze aldatu beharko dugu argiztapen-iturria aldatzen denean?**
- a) Esposizioa
 - b) Irekidura
 - c) Abiadura
 - d) Zurien balantzea
399. **Zer adierazten du «Zebra» patroiak?**
- a) Kontrastea
 - b) Obturazio-abiadura
 - c) Argi-irabaziak
 - d) Erretako zonak
400. **Bideo-edizioan, zer da key delakoa?**
- a) Edizio-amaiera
 - b) Edizio-amaiera
 - c) Irudi bat beste batean txertatzea
 - d) Sekuentzia-al daketa

401. **Zer da «Quick Motion» efektua?**
- a) Ekorketa
 - b) Izozte
 - c) Kateatzea
 - d) Kamera lasterra
402. **Zer izen du bideo-fitxategitik, erreproduzitzeko, segundoko irakurtzen den informazio kantitateak?**
- a) Koadroak segundoko
 - b) Datu-fluxua
 - c) Bereizmena
 - d) Formatu-ratioa
403. **Zer efektu sortzen du 50 fps-ko grabazio baten erreproduzio normalak?**
- a) Kamera geldoaren efektua
 - b) Kamera lasterraren efektua
 - c) Fitxategiaren tamainari bakarrik eragiten dio
 - d) Grabatze-abiadurak ez dio eragiten erreproduzioari
404. **Nahasketa-mahai bat monitorizatzeko, kanal indibidual guztiak doituko ditugu, seinale-adierazleak balio honetatik gertu egon daitezen:**
- a) 0 dB
 - a) 6 dB
 - c) 10 dB
 - d) 100 dB
405. **Zenbat pin ditu seinale orekaturako XLR konektore edo cannon batek?**
- a) 1 pin
 - b) 2 pin
 - c) 3 pin
 - d) 4 pin
406. **Mikrofono dinamikoa...**
- a) Haril finkokoa da.
 - b) Harilik gabekoa da
 - c) Haril mugikorrekia da
 - d) Haril alternokoa da
407. **Zer da plano batetik bestera xehetasun guztiak bat etortzea —argia eta soinua barne—, hala pertsonena nola objektuena eta egoerena?**
- a) Kadentzia
 - b) Kateadura
 - c) Etalonajea
 - d) Raccord-a

408. **Zer unitatetan neurtzen da argi-iturri batek igortzen duen argi-intentsitatea?**
- a) Lumenetan
 - b) Kandeletan
 - c) Luxetan
 - d) Wattetan
409. **Zein da bi irudi digital konparatzeko neurri bakarra?**
- a) Haien kolore-sakonera
 - b) Haien kolore modua
 - c) Bakoitzaren pixel kopurua
 - d) Inprimatzeko erabilitako bitartekoa: inprimagailua, argazki-printerra, arte grafi-koak.
410. **Fotografian, zer adierazten du ISO siglak?**
- a) Ea pelikula infragorria den
 - b) Diafragma-zenbakia
 - c) Flasharen potentzia
 - d) Pelikularen sentikortasuna
411. **Adierazi zertarako balio duen UV iragazki batek:**
- a) Pelikularen pikorra murrizteko
 - b) Erradiazio ultramorea ezabatzeko
 - c) Isla metalikoak ezabatzeko
 - d) Argi fluoreszentea konpentsatzeko
412. **Zer izen du pantailan aurkez daitekeen unitate grafikorik txikienak?**
- a) Bit.
 - b) Pixel.
 - c) Puntua.
 - d) Pika.
413. **Argiztapenean, zer dira dimmerrak?**
- a) Metalezko xafla lauak dira, lanpararen alboetan ezarriak argiak eremu jakin batzue-tan zuzenean jotzea saihesteko
 - b) Intentsitate-erregulagailuak.
 - c) Fokuratzeko ahalmena duten argiztagailuak.
 - d) Fluoreszente orekatuak.
414. **Zer izen du bideo-kameran argia bideo-seinale bihurtzen duen atalak?**
- a) CCDa
 - b) Zuzia
 - c) Bisorea
 - d) Iragazkia

415. **Hauetako zein ez da bideo-fitxategi digital bat?**
- a) JPG
 - b) MPEG
 - c) AVI
 - d) MOV
146. **Argazkiak kamera digital batetik Windowsera eramateko:**
- a) Nahitaezkoa da kamera USB kable baten bidez konektatzea
 - b) Nahitaezkoa da memoria-txartelen irakurgailu bat erabiltzea
 - c) Bi modutara egin daiteke: kamera USB kable baten bidez konektatuz edo memoria-txartelen irakurgailu bat erabiliz
 - d) USB kable batez bidez konektatu behar da kamera, baina ez da beharrezkoa kamera aktibatua egotea.
417. **Zoom objektibo batean, zer funtzio du back focus-ak?**
- a) Zoomaren tarte osoa erabili ahal izatea.
 - b) Makroa erabili ahal izatea behar izanez gero.
 - c) Fokua zuzen mantentzea zoomaren tarte osoan.
 - d) Fokua ziurtatzea kameratik gertuen dagoen partean.
418. **Zer izen du eszenako pertsonaietako baten ikuspegia erakusten digun planoak?**
- a) Kontraplanoa
 - b) Plano subjektiboa
 - c) Sekuentzia-planoa
 - d) Eskortzo-planoa
419. **Pertsona hauetako zein da lotura errealizazio-kontrolaren eta telebista-platoaren artean?**
- a) Errealizazio-laguntzailea
 - b) Eszena-zuzendaria
 - c) CUE-operadorea
 - d) CCU-operadorea
420. **Zertarako erabiltzen da PFLa audioa nahasteko kontsola batean?**
- a) Seinale bat bidaltzeko irteera laguntzaileetako bakoitzari.
 - b) Kanal batean sartzen den audio-seinalea faderra igo beharrik gabe entzuteko.
 - c) Bidaltze-busetara seinale bat edo batzuk bidaltzeko.
 - d) Post-fader eta post-panoramiko motako kanal jakin baten seinalea entzuteko.

421. **Bideoa editatzeko softwareak eta hardwareak gordina, efektuak, trantsizioak eta iragazkiak hartu eta bideo-fitxategi jarraitu berri bat eratzen dute. Zer izen du prozesu horrek?**
- a) Renderra
 - b) Arazketa
 - c) Serieko edizioa
 - d) Bihurketa
422. **Zer izen du grabazio baten hasieran erabiltzen den arbelak, editatzeko orduan grabatutakoa zer den identifikatzeko erabiltzen dena?**
- a) Eskaleta
 - b) Klaketa
 - c) Taula
 - d) Erregleta
423. **Fitxategi batek amaieran psd letrak baldin baditu, programa honen fitxategi bat da:**
- a) Indesign
 - b) Photoshop
 - c) Illustrator
 - d) Word
424. **Zer argi mota da hondoa bakarrik argizatzen duena?**
- a) Dekoratu-argia
 - b) Albo-argia
 - c) Kontrastea kontrolatzeko argia
 - d) Ertzeko edo arraseko argia
425. **Zer zuzentzen du TBCak?**
- a) Denbora-oinarriaren erroreak.
 - b) Magnetoskopio baten serbo-erroreak.
 - c) Bideo-pistetako alinealtasuna
 - d) Audio-pistetako alinealtasuna.
426. **Zein da kamerek sortutako kolorea egiaztatzeko seinalea?**
- a) Irabazia
 - b) CCO kaptadorea
 - c) Kolore-barrak
 - d) Zebra patroia
427. **Zeren eta zeren arteko distantzia da tartea edo «airea»?**
- a) Kameraren eta objektuaren artekoa
 - b) Subjektuaren eta dekoratuaren artekoa
 - c) Objektuaren eta ertzen artekoa
 - d) Objektuaren eta hondoaren artekoa

428. **Nahasketa-mahaietan, audioko gailu elektroniko bat dago, maiztasun baxuak, er-tainak eta altuak indartzeko edo ahultzeko balio duena. Zer izen du?**
- a) Konpresorea
 - b) Mugatzailea
 - c) Irabazi-hautagailua
 - d) Ekualizadorea
429. **Zeren euskarria da karramarroa?**
- a) Kamerarena
 - b) Tripodearena
 - c) Objektiboarena
 - d) Argiztapenarena
430. **Zer da bideo-txertatzea?**
- a) Jada editatuta dagoen plano bat iraupen bereko beste batez ordeztzea
 - b) Ebaketa batzuk egitea grabazio-denbora laburtzeko
 - c) Irudiaren grabazioa errepikatzea, segurtasunagatik.
 - d) Izenburu bat txertatzea
431. **Zer da flash-forward delakoa?**
- a) Denboran aurrerantz egindako jauzi bat
 - b) Denboran atzerantz egindako jauzi bat
 - c) Gainjartze bat
 - d) Abiadura handiko trantsizio bat
432. **Zertarako balio du iragazki difusore batek?**
- a) Irudia leuntzeko, gehiegizko araztasuna gutxituta
 - b) Plano orokor bati sakontasun handiagoa emateko
 - c) Irudia biderkatzeko
 - d) Irudia iluntzeko
433. **Zer efektu sortzen du aurretiko argia oso handia izateak?**
- a) Argiaren modelatua murriztea
 - b) Asetasuna
 - c) Kontraargi ahulagoa
 - d) Hondoa gaizki argiztatuta gelditzea
434. **Zer da tripodearen zapata?**
- a) Zorua ukitzen duen gomazko pieza bat
 - b) Kamera mugitzeko eskulekua
 - c) Kamera tripodean akoplatzeko elementu bat
 - d) Tripodea nibelatzeko sistema bat

435. **Non erabiltzen da steadicama irudia egonkortzeko?**
- a) Grabazioetan
 - b) VTRaren serboan
 - c) Irudiak editatzeko softwareetan
 - d) Monitorean
436. **Ekintza osoa plano bakar batean gertatzen denean, zer izen du?**
- a) Masterra
 - b) Sekuentzia
 - c) Planifikatua
 - d) Plano luzea
437. **Zer da drop-en hutsegitea?**
- a) TCLaren hutsegite bat
 - b) Sinkronismoaren hutsegite bat
 - c) Irakurketaren hutsegite bat
 - d) Esportazioaren hutsegite bat
438. **Zer da shutterra?**
- a) Iragazki-hautagailu automatiko bat
 - b) Obturadore elektroniko aldakor bat
 - c) Sentikortasun-hautagailu bat
 - d) Konfiguraziorako atzipen laster bat
439. **Objektiboa zeharkatzen duen argi sorta elementu mekaniko bat erabiliz erregulatzeko, zer erabiliko genuke?**
- a) Foku bat
 - b) Diafragma bat
 - c) Obturadure aldakor bat
 - d) Urruneko kliskagailu bat
440. **Zer da travelling zirkular bat?**
- a) Kamera bere ardatzaren inguruan biratzea
 - b) Aktorea mugimendu zirkular bat egitea kamerarekiko
 - c) Kameraren translazio zirkular bat
 - d) Dekoratuaren inguruko mugimendu bat
441. **Zer egiten du ND iragazki batek?**
- a) Kolore-tenperatura aldatzen du
 - b) Argitasuna gutxitzen du
 - c) Argia polarizatzen du
 - d) Testura bat ezartzen dio irudiari

442. **Zer dira foku-distantzia luzeko objektibo izenekoak?**
- a) Teleobjektiboak
 - b) Normalak
 - c) Angeluhandiak
 - d) Arrain-begiak
443. **Zenbatekoa da gris neutroaren asetasun-gradua?**
- a) % 50
 - b) % 100
 - c) % 0
 - d) % 33
444. **Zertarako erabiltzen da gurutzelarkatzea?**
- a) Elkarrekin erlazionatutako irudiak lotzeko
 - b) Eremu-maiztasuna sare-maiztasunarekin bat etorerrarazteko
 - c) Kliska-efektua ezabatzeke
 - d) Irudiak azkartzeko eta moteltzeko
445. **Zer izen du zinta magnetiko batean soinua eta irudia grabatzen dituen gailuak?**
- a) Bektorskopia
 - b) Txartel-irakurgailua
 - c) Osziloskopia
 - d) Magnetoskopia
446. **Euskarri berezi bat da, gorputzari esekidura libreko beso baten bidez gorputzari lotzen zaiona, eta beso horretan kamera bat ezartzen da. Zer izen du?**
- a) Tripodea
 - b) Standupper-a
 - c) Shade-a
 - d) Steadicam-a
447. **Zer da asetasuna?**
- a) Kolore kontzeptuaren sentsazioa
 - b) Kolore-soberakina
 - c) Kolorearen itxurazko distira
 - d) Kolorearen purutasuna
448. **Noiz esaten da soinu bat lehen planoan dagoela?**
- a) Hondoko musika dagoenean
 - b) Lehen planoan mikrofonoa enkoadratzen dugunean
 - c) Soinua gehiago anplifikatzen dugunean
 - d) Iturria mikrofonotik gertu dagoenean

449. **Soinuak duen propietate bati esker, beraren maiztasunaren arabera hautematen dugu. Zer izen du?**
- a) Intentsitatea
 - b) Tinbrea
 - c) Tonua
 - d) Bolumena
450. **Objektibo hauetan, zein da argitsuena?**
- a) 80 mm 1:5,6
 - b) 120 mm 1:2,8
 - c) 50 mm 1:3,5
 - d) 135 mm 1:5, 4
451. **Konexio hauetan, zein da digitala?**
- a) HDMI
 - b) JACK
 - c) RCA
 - d) DIN
452. **Irudi bat desagertuz doanean eta aldi berean beste bat agertuz joaten denean, zer gertatzen ari da?**
- c) Itzaltze bat
 - a) Kateatu bat
 - b) Gainjartze bat
 - d) Gainezartze bat
453. **Bi ENG kameraz, elkarrizketatzaile batez eta bi elkarrizketatuz egindako elkarrizketaren baten audioak grabatzeko, zein da sistemarik onena?**
- a) Audioak bereizita grabatzea
 - b) Mikrofono bakar batekin grabatzea
 - c) Audioak nahasita grabatzea
 - d) Elkarrizketatuen audioak nahastuz grabatzea
454. **Zer izen du plano baten audioa hurrengoaren gainean luzatzeak?**
- a) Teilakatzea
 - b) Muntatzea
 - c) Txertatzea
 - d) Gainezartzea
455. **Zer lortuko dugu key-frame batekin?**
- a) Irudia mugatzen duen marko bat
 - b) Denbora-lerroan kokatutako puntu giltzarri bat
 - c) Bi punturen arteko trantsizio bat
 - d) Frame-giltza bat

456. **Kontakizun baten egitura klasikoaren diagraman, zein da puntu gorena?**
- a) Korapiloa
 - b) Klimaxa
 - c) Hasiera
 - d) Askaera
457. **Zer izen du grabatzean kameraren posiziotik dagoen ikuseremuak?**
- a) Zabalera
 - b) Objektiboa
 - c) Angelua
 - d) Foku-distantzia
458. **Zer da ziklorama bat?**
- a) 16x24 tamainako fotograma bat
 - b) Estudioaren atzealdea inguratzen duen hondoko dekoratu bat
 - c) Proiektzio erdizirkularreko pantaila bat
 - d) Zenbait aldiz errepikatzen den proiektzio bat
459. **Zer dauka kolore-barrak?**
- a) Kolore primarioak
 - b) Kolore primarioak eta kolore sekundarioak
 - c) Zuria, beltza, kolore primarioak eta kolore sekundarioak
 - d) Zuria, horia, magenta, ziana, gorria, berdea eta urdina
460. **Konexio hauetako zein da analogikoa?**
- a) DVI
 - b) HDMI
 - c) VGA
 - d) FireWire edo IEEE 1394
461. **Zer izen du bideo-muntaketak?**
- a) Errebelatzea
 - b) Editatzea
 - c) Sonorizazioa
 - d) Txertatzea
462. **Zer izen du objektibo baten zentrotik irudiaren zentrora doan irudizko lerroak?**
- a) Argiztapen-ardatza
 - b) Ekintza-ardatza
 - c) Ardatz optikoa
 - d) Ardatz nagusia

463. **Zergatik erabiltzen dira aparrezko pantailak mikrofonoetan?**
- a) Haizeak eragindako zaratak saihesteko
 - b) Kolpeetatik babesteko
 - c) Erabiltzaileen higieena babesteko
 - d) Mikrofonoari nahi gabe emandako kolpeen zaratak saihesteko
464. **Ikuspuntu teorikotik, zer plano da pantailan denborarik gehiena manten daitekeena?**
- a) Plano ertaina, erabiliene delako
 - b) Lehen plano, intentsitate dramatiko une bati dagokiolako
 - c) Plano orokor bat, informazio kantitate handiagoa duelako
 - d) Hiru laurdeneko plano edo plano amerikarra, narratiboena delako
465. **Elkarrizketa bat egin nahi dugu ENG-ekipamendu batekin, lehen planoan grabatuz eta eremu-sakonera oso txikiarekin. Zer egin behar dugu?**
- a) Kamera elkarrizketatuagandik urrundu
 - b) Kamera elkarrizketatugana hurbildu
 - c) Teleobjektibo bat erabili
 - d) Diafragma itxita dagoela grabatu
466. **Zer da dimmer terminoa?**
- a) Argia ebakitzeko elementu bat (bandera)
 - b) Korrante kantitatea erregulatzen duen gailu elektroniko bat
 - c) Fokuetarako iragazki berezi bat
 - d) Kameraren kontrastea kontrolatzeko gailu bat
467. **Zertarako balio du kono batek?**
- a) Argi kantitatea mugatzeko
 - b) Fokua igotzeko
 - c) Foku-angelua zabaltzeko
 - d) Argia barreiatzeko
468. **Bideoa Internet bidez transmititzeko teknologia batek aukera ematen du bideo-fitxategia erreproduzitzeko erabat deskargatu arte itxaron beharrik gabe. Zer izen du teknologia horrek?**
- a) Video on demand
 - b) Video on line
 - c) Bideo erreala
 - d) Video streaming